

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Gipuzkoako Lurralde Historikoaren  
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de  
Gipuzkoa**

**2016**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	11
II.1 Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia .....	11
II.2 Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen Kontuei buruzko iritzia.....	12
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	13
III.A Gipuzkoako Foru Aldundia .....	13
III.A.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	13
III.A.2 Sarrera fiskalak .....	13
III.A.3 Ondasun eta zerbitzuen erosketa .....	14
III.A.4 Diru-laguntzak.....	15
III.A.5 Sorospen-zerbitzuak eta gizarte-politikako hitzarmenak .....	17
III.A.6 Langileria gastuak.....	18
III.A.7 Ondarea .....	18
III.B Erakunde Autonomoak.....	19
III.B.1 Ondasun eta zerbitzuen erosketa .....	19
III.C Merkataritzako Foru Sozietateak.....	19
III.C.1 Langileria gastuak.....	19
III.C.2 Ondasun eta zerbitzuen erosketa .....	19
IV. FINANTZAREN ANALISIA .....	21
IV.1 GFAren doitutako aurrekontuaren emaitza .....	21
IV.2 GFAren Diruzaintza Geldikina eta Zorpetzea.....	23
IV.3 Erakunde Autonomoak eta Merkataritzako Foru Sozietateak .....	23
IV.4 Ondorioa .....	24
IV.5 Aurrekontuaren Egonkortasuna eta Finantzaren Iraunkortasuna.....	24
V. URTEKO KONTUAK .....	27
V.1 Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontuak .....	27
V.2 Foru Erakunde Autonomoen Kontuak.....	30
V.3 Merkataritzako Foru Sozietateen Kontuak .....	34



<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>37</b>
A Gipuzkoako Foru Sektorre Publikoaren Kontu bateratuak .....	37
B Gipuzkoako Foru Aldundia .....	39
B.1 Alderdi orokorrak .....	39
B.2 Aurrekontua, aurrekontuaren aldaketak eta konpromiso kredituak .....	40
B.3 Langileria gastuak.....	41
B.4 Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak .....	43
B.5 Emandako transferentzia eta diru-laguntza korronteak eta kapitalezkoak.....	44
B.6 Inbertsio errealak, ibilgetua eta ondare garbia .....	49
B.7 Sarrerak, zordunak eta zerga hartzekodunak.....	52
B.8 Transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalekoek eragindako sarrerak.....	57
B.9 Finantza ibilgetua eta finantza aktiboak.....	58
B.10 Zorra eta finantza gastuak .....	59
B.11 Zordun eta hartzekodun ez aurrekontukoak .....	61
B.12 Diruzaintza eta ondare sarrerak .....	62
B.13 Aurrekontu eta ondare emaitzaren arteko kontziliazioa.....	62
B.14 Kontratazioaren analisisa .....	63
B.15 Diru-laguntzen analisisa .....	67
C Foru Erakunde Autonomoak.....	70
C.1 Langileria gastuak.....	70
C.2 Kontratazioaren analisisa .....	71
D Merkataritzako Foru Sozietateak.....	72
D.1 Ibilgetu ukiezin eta materiala eta epe luzeko hornidurak.....	72
D.2 Ibilgetuko inbertsioak eta izakinak .....	73
D.3 Finantza inbertsioak epe laburrera .....	74
D.4 Zorpetzea eta finantza gastuak.....	75
D.5 Langileria gastuak.....	76
D.6 Bestelako ustiapen gastuak.....	76
D.7 Kontratazioaren analisisa .....	77
<b>ALEGAZIOAK .....</b>	<b>79</b>
<b>BOTO PARTIKULARRA .....</b>	<b>91</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>95</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>97</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>99</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad de las entidades que integran el Sector Público Foral .....	99
II.2 Opinión sobre las Cuentas de las entidades que integran el Sector Público Foral .....	100
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>101</b>
III.A Diputación Foral de Gipuzkoa .....	101
III.A.1 Presupuesto y contabilidad .....	101
III.A.2 Ingresos fiscales.....	101
III.A.3 Contratación de bienes y servicios .....	102
III.A.4 Subvenciones .....	103
III.A.5 Servicios asistenciales y convenios políticas sociales.....	105
III.A.6 Gastos de personal .....	106
III.A.7 Patrimonio.....	106
III.B Organismos Autónomos .....	107
III.B.1 Contratación de bienes y servicios .....	107
III.C Sociedades Mercantiles Forales .....	107
III.C.1 Gastos de personal .....	107
III.C.2 Contratación de bienes y servicios .....	107
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>109</b>
IV.1 Resultado Presupuestario Ajustado de la DFG .....	109
IV.2 Remanente de Tesorería y Endeudamiento de la DFG .....	111
IV.3 Organismos Autónomos y Sociedades Mercantiles Forales .....	111
IV.4 Conclusión .....	112
IV.5 Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera .....	112
<b>V. CUENTAS ANUALES.....</b>	<b>115</b>
V.1 Cuentas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.....	115
V.2 Cuentas de los Organismos Autónomos Forales.....	118
V.3 Cuentas de las Sociedades Mercantiles Forales .....	122



<b>ANEXOS .....</b>	<b>125</b>
A Cuentas consolidadas del Sector Público Foral de Gipuzkoa .....	125
B Diputación Foral de Gipuzkoa .....	127
B.1 Aspectos generales .....	127
B.2 Presupuesto, modificaciones presupuestarias y créditos de compromiso .....	128
B.3 Gastos de personal .....	129
B.4 Compras de bienes corrientes y servicios.....	131
B.5 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital concedidas.....	132
B.6 Inversiones reales, inmovilizado y patrimonio neto.....	137
B.7 Ingresos, deudores y acreedores tributarios.....	140
B.8 Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes y de capital.....	145
B.9 Inmovilizado financiero y activos financieros .....	146
B.10 Deuda y gastos financieros .....	147
B.11 Deudores y acreedores no presupuestarios .....	149
B.12 Tesorería e ingresos patrimoniales .....	150
B.13 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial .....	150
B.14 Análisis de contratación .....	151
B.15 Análisis de subvenciones.....	155
C Organismos Autónomos Forales .....	158
C.1 Gastos de personal .....	158
C.2 Análisis de contratación .....	159
D Sociedades Mercantiles Forales .....	160
D.1 Inmovilizado intangible y material y provisiones a largo plazo .....	160
D.2 Inversiones inmobiliarias y existencias .....	161
D.3 Inversiones financieras a corto plazo .....	162
D.4 Endeudamiento y gastos financieros .....	163
D.5 Gastos de personal .....	164
D.6 Otros gastos de explotación.....	164
D.7 Análisis de contratación .....	165
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>167</b>
<b>VOTO PARTICULAR .....</b>	<b>179</b>



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

7/2008 FA	7/2008 Foru Araua, abenduaren 23koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorraren aurrerapen agiria (2008-2016) onartzen duena.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga.
BPG	Barne Produktu Gordina.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
FA	Foru Araua.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GHK	Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa.
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
IZFE	Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga.







## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2017rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraikiz, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren (GLH) 2016ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak informazioa eman behar du foru sektore publikoaren ekonomia, finantza eta ondarearen egoerari buruz, ekitaldiaren ekonomia eta ondarearen emaitzei buruz eta aurrekontuen likidazioari buruz; besteak beste, honako agiri hauek osatzen dute:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko kontuek eta kudeaketa txostenak.
- Foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeen urteko kontuek.
- Foru sektore publikoaren bateratutako kontuak

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoa honako hauek osatzen dute:

- Foru Administrazioa, Foru Aldundian gorpuzten dena (GFA).
- Erakundeen administrazioa, ondoko foru erakunde autonomo hauek osatzen dutena:
  - Uliazpi Fundazioa, zeinaren xedea eta jarduera adimen ezgaitasun larria duten pertsonak eta haien senitartekoak artatzea den.
  - Kabia, gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta egikaritzea helburu duena.
- Merkataritzako foru sozietateak (guztiak ere GFAk % 100ean partaidetutakoak):
  - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea, SA (IZFE, SA), foru eta toki administrazioari informatika zerbitzuak ematen dizkiona.
  - Bidegi-Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia, SA; sozietatearen xedea A-8 eta AP-1 autobideak, horien instalakuntza eta zerbitzuak mantendu, zaindu, eraiki eta ustiatzea da.
  - Etorlur, Gipuzkoako Lurra, SA, zeinaren xedea lurzorua sustatu, antolatu, urbanizatu eta jarduera ekonomiko, etxebizitza eta era guztietako ekipamendu publikoak besarkatuko dituen lurzorua saldu eta erostea den. Gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan nekazaritza-lanetarako erabilgarria den lurzorua erosi eta kudeatzea ere helburu du.



Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, hornidura eta zerbitzuak, diru-laguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: GFaren kontuak, foru erakunde autonomoen kontuak eta merkataritzako foru sozietateen kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Foru sektore publikoaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Erakunde autonomoek eta merkataritzako foru sozietateek dagozkien kanpo auditoretzako txostenak eginak dituzte.



## II. IRITZIA

### II.1 FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEK LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. GFAk uste du bertako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2016an 39 langileri guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikulua arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZetik salbuetsita, abenduaren 5eko 13/2013 FAREN 9. artikulua arabera (ikus B.3 eranskina).
2. GFAk esleipen prozedura irekiari dagozkion betekizunak saihestuta hiru zerbitzu kontratatu ditu, guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoan, kontratazio araudian finkatutako publikotasun eta lehia printzipioak urratuz (ikus B.14.2 eranskina).

Berebat, GFAk guztira 2,9 euroren zenbatekoan bost zerbitzu kontratatu ditu, kontratazio araudiaren arabera eskagarri lirakeen esleipen prozedura irekiak alboratu zitzaizkion; prozedura horiek ekitaldia amaitu aurretik gauzatu dira (ikus B.14.2 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako lege hausteak alde batera, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek zuzentasunez bete dute 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II.2 FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEN KONTUEI BURUZKO IRITZIA

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1. Guztizko Diruzaintza Geldikina eta Ondare Garbia 2016ko abenduaren 31n 50,1 eta 7,4 milioi euroan gehitu behar da, hurrenez hurren, ondoko doiketen ondorioz:

	Euroak milakotan	
	D. Geldikina 2016.12.31	Ondare garbia 2016.12.31
<b>ERANSKINA</b>		
B.5 Etxez etxeko zerbitzuaren 2016ko 4. hiruhileko gastuak.....	(3.016)	(3.016)
B.7.2 Zor fiskalak gauzatan biltzeagatik erakundeen konpromisoak .....	-	(39.808)
B.7.2 Zordun eta hartzek. tributarioak, hornidurak kenduta, aurrekontuan islarik gabe ....	17.692	-
B.7.2 BEZ doiketagatiko sarrerak, Estatuak konpentsatu eta kontabilizatu gabeak.....	35.412	35.412
<b>GUZTIRA</b>	<b>50.088</b>	<b>(7.412)</b>

2. Ibilgetu material eta ukiezina, 2016ko abenduaren 31n 3.031,9 milioi euroren amortizazio kostu garbia izan duena, ez dago kontu-sail jakinetarako ondasun-zerrenda batean euskarritua, zeinaren kostu garbia guztira 1.967,9 milioi eurorena den; honenbestez, ezin jakin daiteke ondasun eta eskubide horien egiazko egoera (ikus B.6.2 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak salbuetsita, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Foru Sektorre Publikoa osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2016ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.A GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

##### III.A.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- GFAk Inbertsio errealen kapituluan errepideak mantentzeko gastuak kontabilizatu ditu, 44,1 milioi euroren gastua izan duena; ondarean kudeaketa arrunteko gastuen atalean erregistratzen dira, izan ere, nagusiki konponketak izan direnez, kapitalizagarritzat jotzen ez diren eragiketak jasotzen ditu.
- Toki-erakundeek onura publikoko euren mendien aprobetxamenduaren % 20 mendi horien baso hobekuntzetan inbertsioak egiteko baliatu behar dute derrigor. Horretarako, GFAk irekitako kontu batean % 20 horri dagokion zenbatekoa ingresatu behar dute. Honi dagokionez, GFAk bi banku-kontu ditu, 2016ko abenduaren 31n 1,7 milioi euroren saldoa zutenak; halaber, 2016ko ekitaldian zehar 288.486 euro erabili dira, kontabilitatean islatu ez direnak. Kontu hauek GFAko diruzaintzaren atal izan behar dutela uste dugu, eta honenbestez, artekaritzaren eta kontabilitate publikoaren erregimenaren kontrolera meneratuak daude.
- 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorraren Oroitidazkiak Gipuzkoako lurralde historikoan hiri hondakinen azpiegiturak eraiki eta abiarazteko finantzaketa kontratuei dagokienez GFAk 2011 eta 2015ean izenpetutako konpromisoen berri ematen du, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk izenpetutakoak, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren bitarteko instrumental eta bitarteko propio den aldetik. Informazio hori 2011n izenpetutako konpromisoen agirirako osatu behar litzatekeela uste dugu eta informatu GFARI zein ondorio ekar liezazkioken aipatutako sozietateak izenpetutako finantzaketa agirien balizko epe-betetze aurreratua.

##### III.A.2 SARRERA FISKALAK

Atal honetan ondotik adierazitakoak azpimarratu nahi ditugu:

- 2016ko aurrekontu-ekitaldiaren itxieran, zerga zorrak geroratzeko eta zatikatzeko berrogeita bi eskabide daude, guztira 12,7 milioi euro egiten dutenak eta GFAk ebatzi ez zituenak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-bilketako Erregelamenduaren 44.2 artikulua aurreikusten duen sei hilabeteko epean. Zordunek ordainketa plan bat aurkezten dute eta horri berandutze interesa aplikatzen zaio. Plan hau, nahiz ez duen GFAk berariaz onartzen, bete egiten da oro har eta 2016ko ekitaldi itxieran ingresatzeko dagoen zor saldoa 8 milioi euroena da. Amaitzeko esan behar da zor hauetarako ez dela bermerik gordailatu. Txosten hau idatzi dugun datan aipatu ditugun berrogeita bi eskabideetatik hogeita zazpi, 5,8 milioi euro egin dutenak, 2017an eman dira; bederatzik,



1,2 milioi euro egin dutenek, zorra kitatu dute; 929.156 euro egin duten beste lau, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu dira eta 51.499 euroren beste biek ez dute eskatutako dokumentazioa aurkeztu (ikus B.7.2 eranskina).

- 2016ko ekitaldian emandako hogeita sei gerorapen aztertu ditugu, guztira 49,7 milioi euro egin dituztenak, eta honako alderdi hauek gailendu behar ditugu:
  - Zergapeko bati emandako bi zatikapen, guztira 1,6 milioi euroren zenbatekoan, % 0,54 eta % 0,96 bitarteko interes tasarekin eman dira; Gipuzkoako Lurralde Historikoaren abenduaren 23ko Aurrekontu Orokorren 8/2015 Foru Arauan, ordea, 2016rako % 3,75eko interes tasa zegoen ezarrita. Zatikapen hauek GLHaren martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorren 64.8 artikulua baliatuta eman dira, zeinak onartzen duen Diputatuen Kontseiluak inguruabar apartekoak edo guztien intereseko arazoak daudenean ordainketen zatikapen edo gerorapenak eman ditzakeela, kasu bakoitzean erabakitako baldintzetan. Badira epaiak, euren zuzenbideko oinarrietan zatikapenetan ezarri beharreko interesei dagokienez baldintza bereziak emateko aukera onartzen dutenak eta beste epai batzuk, aldiz, zerga zorretan berandutza interes tipo ezberdinak ezartzeko ezintasuna babesten dutenak. Komenigarria litzateke zerga zorren zatikapen edo gerorapenari baldintza bereziak ezartzeko prozedura garatzea, Zergen Foru Arau Orokorren 64.8 artikuluan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.
  - Guztira 2,3 milioi euroren zenbatekoan emandako bost espedientetan, 3 eta 11 hilabete bitartean gainditu da zatikapena emateko gehiengo epea.
- GFak 2016ko ekitaldian preskribitu dutelako bajaran eman die zordun baten zerga-zorrei, guztira 688.576 euroren zenbatekoan, 2007-2010eko aldiari dagozkionak; ez dira, baina, preskribapena etengo duten jarduerak gauzatu. Zordun honek baditu zor zaharragoak indarrean eta horiei dagokienez, dagozkion egintzak abiarazi dira zorrak preskribatzea saihesteko.
- GFak ez ditu banaketara meneratutako diru-bilketa modura aitortzen berandutza gainkargu eta interesen % 10,6, guztira 1,4 milioi euro egiten dutenak. Azken ekitaldian errepikatu den ehuneko hau antzina egin ohi zen balioespena da, banaketara meneratzen ez ziren zergek, orduan, eragiten zituzten kobrantzen kontzeptuan. Tributu hauek zehaztasunez identifikatu behar dira eta ez gutxi gorabeherako eran.

### III.A.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA

#### Kontratazio espedienteak (ikus B.14.1)

2016ko ekitaldian esleitutako eta lehenagoko ekitaldian esleitu eta ekitaldi horretan egikaritutako kontratazio espedienteak aztertzeetik honako alderdi hau azpimarratu nahi dugu:

- 2014ko ekitaldia baino lehenago esleitu eta 2016ko ekitaldian 4,5 milioi euroren egikaritza izan duten bi kontratazio espedientetan 838 eta 39 espedienteak), ez dira 2016ko ekitaldian kontratuetan aurreikusitako prezio berrikusketak egin.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastua

Administrazioko kontratazio espedienterik gabe kontraturiko gastua aztertzean hamar jarduera azaleratu dira, guztira 738.996 euroren zenbatekoan, zeinetan batzuetan lehia printzipioa ezartzea eskagarri den eta beste batzuetan, hori aplikatzea gomendatzen den; izan ere, horietako bakoitza ekitaldian zehar gauzatutako jarduera bati dagokion arren, finean gastu homogeneousak eta ekitaldi bakoitzean planifika daitezkeen gastuak dira (ikus B.14.2).

Gizarte-politika sailak psikologoaren kontratazioa Gipuzkoako Psikologoaren Elkargo Ofizialarekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmen baten babesean egiten du, arreta psikologikoa emateko hiru programatan esku hartuko duten profesionalak homologatzeko; 2016ko ekitaldian 1,1 milioi euroren gastua eragin du. GFAk Elkargoari eskatu behar lioke proposatutako profesionalak hautatzeko gauzatu dituen ekintzak egiaztatzeke, hitzarmenean aurreikusitakoa betez.

## Errepideko bidaiarien garraioa

- Errepideko bidaiarien garraio zerbitzuaren sei emakida kontratuetatik bostetan (ikus B.14.1, 25, 26, 28, 29 eta 30 espedienteak) urteko likidazioan zerbitzuaren kalitatea ebaluatuko dela dioen klausula bat jaso da, likidazioak bidaiarien kontzeptuan jasotako sarreren % 2ra arteko igoera izan dezakeelarik. Ordaindu beharreko ehunekoa zehaztea neurgarriak diren parametro batzuen baitakoa da (% 1) eta hautemandako kalitatezko adierazle batzuen baitakoa (% 1). 2016ko ekitaldian iraungitzen diren urtekoie dagokien zenbatekoa 501.279 eurorena da eta kasu guztietan, finkatutako gehienekoa % 2koa da. Klausula honi dagokionez alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:
  - Ordaindu beharreko ehunekoa finkatzeko haztapen-irizpideak ez dira garatu bi egoeretatik batean ere.
  - 2016ko ekitaldian ez da kalitatezko parametro eta adierazleak bete izana egiaztatu, likidazioa igotzea eragiten dutenak.

## III.A.4 DIRU-LAGUNTZAK

### Diru-laguntza zuzenak (Ikus B.15)

- Diputatu kontseiluak zuzenean eman dizkie diru-laguntzak lau enpresari (5, 6, 7 eta 14 zk. espedienteak), guztira 246.250 euroren zenbatekoan. Komenigarria litzateke hobeto arrazoitzea bai izan diren interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arazoak bai deialdi publikoa egiteko izan diren zailtasunak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren diru-laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 FAREN 20.3.c) artikulua araberako aparteko prozedura hau baliatzeko aukera ematen dutenak.
- GFAk 2016ko ekitaldian izenpetutako hitzarmen batean, Bergarako Udalarari emandako diru-laguntza zuzenari dagokionez (1 zk. espedienteak) bere gain hartzen du, gainera, UNED-Bergara Fundazioaren kide den aldetik, Bergarako Errege Apaizgaitegian



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Fundazioak dituen aretoak egokitzeko lanak ordaintzeko konpromisoa, UNED-Bergara Fundazioaren urteko defiziterako egin beharreko ekarpenaren ehunekoaren mugara arte (% 63,61). 2016ko ekitaldian 609.957 euroren ekarpena egin da Fundazioak GFari ordaintzen dion ekitaldi itxietako itzulketaren sarrerarekin berdintzeko, GFAk 2014an emandako diru-laguntza bat baliogabe uzteagatik. GFaren aurrekontuan ez dago aurrekontuko zuzkidurarik konpromiso hau bere gain hartzeko eta ekarpena egin da Fundazioak lanak esleitu gabe zituela.

- Guztira 518.000 euroren zenbatekoan emandako bi diru-laguntzatan (2 eta 9 zk. espedienteak), onuradunak ez du aurkeztu hiru eskaintza eskatu izana egiaztatuko duen dokumentaziorik, eskagarri den kasuetan diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik.
- Zinema-ekoizpen baten gidoi eta eszenografiarako guztira emandako 40.000 euroren diru-laguntza bat (6. espedientea) egikartzeko egindako gastuen justifikazioak proiektuan jasotako aipatutako kontzeptu guztien % 33 egiten du. Zeinahi dela ere diruz lagundutako zenbatekoa, justifikazioa proiektuan diruz laguntzen diren kontzeptu guztiena egin behar dela uste dugu.
- GFAk 100.000 euroren diru-laguntza zuzena eman dio kultur elkarte bati (2. espedientea), “sentitu, pentsatu, ekin” izeneko proiektua gauzatzeko. Elkarte honek diruz lagundutako jarduera birkontratatu egin du; ordea, ez zaio inongo aipamenik egin emakida ekintzan eta GFAk ere ez du aurretiazko baimenik eman. Justifikazio-agirian, 64.586 euroren zenbatekoa egiten duen faktura batek 11.209 euro barne hartzen ditu BEZ kontzeptuan; alabaina, fakturako kontzeptuak laguntzaileei egindako ordainketekin eta bidaiari eta hoteletako gastuekin euskarritzen dira eta horiek ezin dira BEZarekin berriz fakturatu.
- GFAk berme eta arriskuko bi sozietateri diru-laguntza zuzen bat eman die (8. espedientea) guztira 900.000 euroren zenbatekoan eta hitzarmenean zehaztu da emandako zenbatekoa murriztu ahal izango dela hitzarmenean jasotako aurreikuspenekiko sozietateek azkenean izenpetzen dituzten eragiketen desbideratzearen arabera. Ez da zehazten nola gauzatu den murrizketa hori.
- 2014ko ekitaldian GFAk Errenteriko Udalari 3,5 milioi euroren diru-laguntza zuzena eman zion Lekuona lantegia arte eszenikoen zentro modura egokitzeko; bertan, GFAk egin beharreko ekintzen kostu guztiaren gainean % 60 finantzatu zuen; hona hemen azpimarratu nahi ditugun alderdiak:
  - Foru Gobernu Kontseiluak 2016ko uztailearen 19an onartu zuen indarraldia 2017ko abenduaren 31ra arte luzatzea eta 2017ko ekitaldira aldatzea 2016ko ekitaldiko urtekoa, 1,4 milioi euroren zenbatekoan. Erabakiaren aurrekarietan esaten da 2016ko maiatzean egindako batzorde teknikoaren eta obren aktak jasotzen duela eten eta kitatu egingo dela izenpetutako obra kontratua, proiektua aldatu egingo dela eta beste lehiaketa bat abiaraziko dela arte eszenikoen erreferentziazko zentroko lanak amaitzeko eta honenbestez, gomendagarria litzatekeela hitzarmenaren likidazioa egitea.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- 2016ko abenduaren 31n GFari diru-laguntzaren norakoaren justifikazio modura aurkeztutako ziurtagiriek 3,7 milioi euroren zenbatekoa egiten dute guztira eta GFak 3,7 milioi euro ordaindu ditu guztira; horrek GFaren aldetik % 66ko finantzaketa egin dela esan nahi du.

### Deialdi publiko bidez emandako diru-laguntzak (ikus B.15)

- Diru-laguntza lerro batean (12. espedientea), zeinaren indarrez 2,4 milioi euro eman diren, oinarri-arauek ez dute balorazio-batzorde bat eratzeko agintzen eta zerbitzuburuak egiten du balioespena.
- Eskola kirolerako hogeita hamabi kirol federaziori 837.499 euroren diru-laguntzak ematen dizkien diru-laguntza lerro batean (3. espedientea) emandako zenbatekoa erabakitzen da 2010eko ekitaldian emandako kopuruen arabera, gaurkoturik; ez da, baina, banaketarako irizpide objektiborik zehazten.

### Beste alderdi batzuk

- Estatuek ematen dituzten laguntzetan europar araudia betetzeari dagokionez, emakida-erabakiaren proposamenetan diru-laguntza hori arautu duen Europako araudi esparrua barne hartzea gomendatzen da. Hau guztia Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiaren 2015eko abenduaren 9ko Ebazpena 2016ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzearekin bat, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalari eman beharreko informazioaren edukia eta maiztasuna arautzen dituena; datu-base hau berriz konfiguratu da beste informazio atal batzuk ere jasotzeko, Sektore Publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legearen aurreikuspenak eta Europako araudia betetzearren, estatuko laguntza gaietan estatu-kide bakoitzak argitara eman beharreko edukiak zehazten dituena.

### III.A.5 SOROSPEN-ZERBITZUAK ETA GIZARTE-POLITIKAKO HITZARMENAK

Gizarte zerbitzuak ematean hitzarmenaren moldea erabiltzeari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak kontzertu-araubidea definitzen du euskal administrazio publikoen eta erakunde pribatuen artean gizarte zerbitzuak emateko lankidetzaren molde lehenen modura; ez da, baina, erregelamendu bidez garatu. Aipatutako legeak hitzarmenaren moldea irabazi asmorik gabeko ekimen sozialeko erakundeentzako bereizten du, jardueraren edo prestazio zein zerbitzuaren berezitasunak, izaera presakoak edo izaera berritzaile eta esperimentalak kontzertuko erregimenaren baldintzak hitzarmen horiei ez aplikatzea aholkatzen dutenean. Hitzarmenetatik eratorririk GFak erregistraturiko gastutik, 27,3 milioi euro enpresa pribatuekin gauzatzen dira (ikus B.5.2). Gure iritzira, GFak hitzarmenaren moldea erabili behar du Gizarte Zerbitzuen Legeak babestutako egoera eta erakundeetarako.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Gizarte zerbitzuetako kontratu zein hitzarmenei aplikatzen zaizkien urteko prezioen berrikuspenei dagokienez, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Gobernu Kontseiluak 2016ko uztail eta irailean erabaki zuen, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, mendekotasun eta ezintasun egoeran dauden nagusiak artatzeko gizarte zerbitzuetako hitzarmen eta kontratuei ezargarriak zaizkien prezioak % 0,7 igotzea; onartutako igoera hau enpresa-elkarte eta sindikatuen artean adostutako enpresa-hitzarmenetatik eratorri da. Hitzarmen eta kontratuei ordaindutako igoerek, hurrenez hurren, 1,1 milioi euro eta 188.966 euro egiten dituzte. Igoera hauekin lotuta alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:
  - Espedienteetan ez da frogatzen baliatutako eguneratze-koefizienteak araudian jasotako baldintzak betetzen dituenik.
  - Hamazazpi kontratutan baliatutako prezioak berrikusteko indizea ez zaio kontratu horiek arautzen dituzten baldintzen agiri berezi administratiboetan finkatutako berrikuspen erregimenari egokitzen. Hitzarmenetan ez dira prezioak berrikusteko indizeak finkatzen.
- Adingabe koentzako, gizarteratzeko eta osasun mentaleko etxeetarako ez da prezioen igoerarik onartu, nahiz kontratuek, 2014 baino lehenago esleitu zirenek, abenduko hileko KPIren % 85 berrikusteko klausula besarkatzen duten. Esanguratsuenak dira “Ezia” haurtzaro eta nerabezaroko zonaldeko ekipoen proiektua eta babesik gabe dauden adingabeentzat Loistarain, Zarategi, Iturriotz, Azpi eta Azpilikueta harrera-egoitzen erabilera- eta kudeaketa-emakida; 2016ko ekitaldian guztira 4,5 milioi euroren gastua eragin du (38 eta 39 espedienteak B.14.1ean).

### III.A.6 LANGILERIA GASTUAK

Aurrekontuaren eranskinean barne hartutako plantilla 2.049 plazakoa da. Aurrekontuan jasotako plaza modura barne hartu dira lanpostuen zerrendaz besteko diren aldi bateko izaera duten kontratuak, besteak beste, errenta kanpainarako teknikarien programako bitarteko 97 kontratu, suhiltzaileen 55 kontratu eta Egogain egoitzarako 37 zaintzaile kontratu. Gure iritzira aurrekontu plantillak soil-soilik plaza bati loturik dauden kontratazioak jaso behar ditu; alabaina, programako bitarteko aldi bateko kontratazioak, ordezkapenak, e.a. gastuaren aurrekontuko diru-izendapenaren zenbaketan soilik hartuko dira kontuan.

### III.A.7 ONDAREA

Ondasun zerrenda orokorra ez du Diputatuen Kontseiluak onetsi, GLHren Ondareari buruzko 8/1996 F Aren 29. artikulua aurreikusten duen moduan.



### **III.B ERAKUNDE AUTONOMOAK**

#### **III.B.1 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA**

2016ko ekitaldian zehar Uliazpin hainbat ondasun eta zerbitzuren erosketa egin da, 7 jarduerari dagozkionak, guztira 520.480 euroren zenbatekoarekin, bakoitza hornitzaile bakarrarekin kontratatua eta kontratu txikiaren moldea baliatuta izapidetua; alabaina, horientzat guztientzat lehia printzipioa aplikatzea dagokio (ikus C.2).

### **III.C MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK**

#### **III.C.1 LANGILERIA GASTUAK**

##### **Alderdi orokorrak**

Foru merkataritzako sozietateetan goi zuzendaritzako kontratuek lanuzteagatiko kalte-ordain klausulak besarkatzen dituzte. GFaren Erakunde-antolamendu, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 FA aldarazten duen uztailaren 3ko 3/2013 FAK ez ditu GFako goi kargudun eta behin-behineko langileentzat lanuzteagatiko kalte-ordainak aurreikusten. Gainera, FA honek ez du foru merkataritza-sozietateetako goi kargudun eta behin-behineko langileen ordainsarietarako mugaketarik ezartzen; ordea, gomendagarria da hala egitea, foru sektore publiko osoari tratamendu bera ematearren.

#### **III.C.2 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA**

##### **Alderdi orokorrak**

2016ko ekitaldian ez da Sektore Publikoaren Kontrataziorako Plataforman argitalpena egin, Merkatu Batasunaren Bermeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legearen xedapen gehigarri hirugarrenak arautzen duena, zeinak behartzen duen egitera, kasu guztietan, dela kontratazio atalek zuzenean, dela administrazio eta erakunde publikoen informazioa gehitzeko gailu elektronikoen elkarlotura bidez.

##### **Bidegi, SA**

- “Prezioa” esleipen irizpideari puntuak esleitzeko formulak (esleipen irizpideen % 51ko haztapena duenak) lizitatutako zenbatekoarekiko merkatze prezioaren eta emandako puntuen artean proportzionaltasunik batere ez duten balorazioak eragiten ditu honako kontratu hauetan: Antzuola-Bergara GI-632 saihebidetako obretan, 50,5 milioi euroan esleitu zirenetan; eta GLHn gaitasun handiko sareko azpiegiturak kobratzeko sistemarenean, 19,3 milioi euroan esleitutakoan. Espedienteetan ez dira justifikatu formula hau erabiltzeko arrazoiak.

Aipatutako bi espedienteetan eskaini diren gehieneko merkatzeek (% 20,95 eta % 18,54) prezio irizpideari esleitutako 51 puntuak eskuratu dituzte eta eskainitako gutxieneko merkatzeek, berriz, (% 7,23 eta % 5,05), hurrenez hurren, 50,04 eta 49,46 puntu eskuratu dituzte. Egoera honen ondorioz, esleipenduna hautatzeko unean prezioak ez du inongo eraginik.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- 2016ko irailaren 30ean Urretxu/Legazpi-Bergara lotunearen arteko GI-632 saihesbideko obraren prezioen berrikuspena onartu da 2012ko azarotik 2015eko apirila bitarteko aldirako, inbertsioaren azken ziurtagiriaren data, eta berrikuspenaren zenbatekoa 2,5 milioi eurorena izan da. Prezio berrikusketa hau esleipen hartzaileak 2015eko urrian eskatu zuen. Prezioen berrikusketak obra ziurtagiri bakoitzean aplikatu behar dira edo, salbuespenez, kontratua likidatzen denean, 2015eko ekainean egin zena.
- Arautze harmonizatuari lotzen ez zaizkion kontratazio espedienteetan ez dago kontratazio mahairik; ordea, komenigarria da mahaia osatzea kontratazio atalari aholku eman eta esleipen proposamena egin diezaion.
- Bidegi, SAren banku-kontuetako funtsak erabiltzeko baimena pertsona bakar batek du eta gomendagarria da sinadura mankomunatuak izatea.



## IV. FINANTZAREN ANALISIA

### IV.1 GFA-REN DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA

Hona hemen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontuetatik eratorri diren finantza magnitude nagusiak

	Euroak milakotan		
	2015	2016	Bariazioa 2016/2015
<b>Sarrera arruntak</b>	<b>4.158.293</b>	<b>4.256.312</b>	<b>2,4%</b>
Zerga itunduak .....	4.104.032	4.197.674	
Zerga ez itunduak.....	14.934	18.254	
Transferentzia arruntak.....	39.042	40.246	
Ondare sarrerak.....	285	138	
<b>Erakundearteko konpromisoak</b>	<b>(3.454.146)</b>	<b>(3.529.469)</b>	<b>% 2,2</b>
Estatuari kupoa .....	(252.258)	(233.190)	
Eusko Jaurlaritzari ekarpena.....	(2.764.886)	(2.846.943)	
Udalei ekarpena .....	(437.002)	(449.336)	
<b>Sarrera arrunt garbiak</b>	<b>704.147</b>	<b>726.843</b>	<b>% 3,2</b>
<b>Gastu arruntak</b>	<b>(572.783)</b>	<b>(592.289)</b>	<b>% 3,4</b>
Langileria-gastuak .....	(104.545)	(104.608)	
Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak .....	(108.545)	(113.490)	
Finantza gastuak .....	(7.026)	(4.677)	
Transferentzia arruntak.....	(352.667)	(369.514)	
<b>ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)</b>	<b>131.364</b>	<b>134.554</b>	<b>% 2,4</b>
<b>KAPITALEZKO ERAGIKETAK (2)</b>	<b>(113.471)</b>	<b>(109.244)</b>	
Egiazko inbertsioen besterentzea.....	144	788	
Kapitalezko transferentziek eragindako sarrerak ..	7.892	5.696	
Inbertsio errealetan gastuak.....	(81.367)	(72.861)	
Kapitalezko transferentziek eragindako gastuak ..	(40.140)	(42.867)	
<b>FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA (3)</b>	<b>(425)</b>	<b>(10.980)</b>	
Finantza aktiboen bariazio garbia .....	50	(10.205)	
Finantza pasiboen bariazio garbia.....	(475)	(775)	
<b>EKITALDIAREN EMAITZA (1+2+3)</b>	<b>17.468</b>	<b>14.330</b>	
<b>EKITALDI ITXIEN EMAITZA (4)</b>	<b>71</b>	<b>-</b>	
<b>EMAITZARI DOIKETAK (5)</b>	<b>3.192</b>	<b>10.297</b>	
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3+4+5)</b>	<b>20.731</b>	<b>24.627</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA

Aurrekontu likidazioetatik eratorritako emaitza arrunta 2016ko ekitaldian aurrekoarekiko % 2,4 gehitu da eta 3,2 milioi euroren igoera ekarri du. Igoera hau sarrera arruntek erakunde konpromisoak kenduta guztira izan duten 22,7 milioi garbiko igoeraren ondorio da, % 3,2ko igoera egiten duena, eta gastu arruntek izan duten 19,5 milioi euroren igoeraren ondorio, zeinak gastu arrunta % 3,4 gehitzea eragin duen.

2016ko ekitaldiko zerga itunduen eta erakunde konpromisoen kontzeptuek eragindako diru-bilketak aurreko ekitaldiarekiko % 2,3 eta % 2,2 gehitu dira, hurrenez hurren, eta bi ekitaldietan erakunde konpromisoek diru-bilketaren % 84,1 egin dute.

## KAPITAL ERAGIKETAK

Egikaritutako inbertsioen kontzeptuko kapitalezko eragiketen emaitza negatiboa, sarreretatik garbi, 4,2 milioi euro murriztu da. Ekitaldian inbertsioen egikaritze txikiagoa izateak eragin du hau nagusiki.

## FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA

Eragiketa hauetan azpimarratzekoa da GFak Bidegi, SA foru sozietate publikoaren kapitala handitzeko egindako 10 milioi euroren ekarpena 2016an. Bestetik, gogoan izan behar da 2016ko ekitaldiko GLHren Kontu Orokorrean jasotako GFaren Diruzaintza Geldikinak ekitaldi itxieran erabili gabeko kreditu lerroetan gauzatutako finantzaketa barne hartzen duela, 99,4 milioi euroren zenbatekoan.

## DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA

2016ko ekitaldian 24,6 milioi euroan doitutako aurrekontu emaitza 3,9 milioi euroan gehitu da aurreko ekitaldiarekiko, batik bat, jada aurreko paragrafoetan azaldutako ondoko arrazoen ondorioz:

- Eragiketa arrunten emaitza 3,2 milioi euroan gehitu izana.
- Atxiki gabeko diruzaintza geldikin bidez finantzatutako kredituak gehiago doitu izanaren ondorioz emaitza 7 milioi euroan gehitu da.
- Kapitaleko eragiketen egikaritze txikiagoaren ondorioz, doitutako aurrekontuaren emaitza 4,2 milioi euro handiagoa izan da.
- Emaitza txikiagoa, Bidegi, SAREN aldeko 10 milioi euroren kapital-handitzea egiteagatik.

## IV.2 GFA-REN DIRUZAINZTA GELDIKINA ETA ZORPETZEA

Hona hemen Diruzaintza Geldikinak eta baliatu gabeko maileguez izan duten bilakaera:

DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan	
	2015	2016
Diruzaintzako Geldikina .....	60.766	11.224
Maileguetatik erabili gabeko saldoa kreditu kontu moduan.....	35.500	99.400
<b>Finkatutako Diruzaintza Geldikin Erabilgarria</b>	<b>96.266</b>	<b>110.624</b>

HKEEK proposatutako doiketak aintzat hartuta, 2016ko ekitaldi itxieran Finkatutako Diruzaintza Geldikin Erabilgarria 50,1 milioi euroan gehitu beharko litzateke.

ZORPETZEA	Euroak milakotan	
	2015	2016
<b>Erabilitako maileguak</b>	<b>526.350</b>	<b>470.475</b>

Erabilitako maileguen gutxitzeak kreditu-lerroen erabilera txikiagoan du jatorria, zeinaren aurrekontuko erregistroa aurreko urteetan zenbateko erabilgarri osoarekin egin baitzen. Hauxe da, hain zuzen ere, erabili gabeko saldoaren igoera hau 2016ko ekitaldiko aurrekontuko mugimenduetan ez islatzeko arrazoia.

2016ko urterako GFako aurrekontu orokorrak onartzen dituen 8/2015 FAK, abenduaren 23koak, GFari dagokionez 2016ko abenduaren 31rako epe luzeko zorpetze muga 569,9 milioi euroan ezarri du. Berebat, maileguak amortizatzeko zuzkiduraren aurrekontuko diruzendapena 8,8 milioi euroa izango dela aurreikusten du.

## IV.3 ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK

Uliazpi Fundazioa eta Kabia erakunde autonomoak eta IZFE, SA eta Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA merkataritzako foru sozietateak ia osorik GFak eskualdatzen dizkien funtsen bidez finantzatzen dira eta honenbestez, GFaren finantza-analisiak jada besarkatzen ditu haien kontuak ere.

Bidegi, SA sozietate publikoak ez du GFatik finantzaketarik jasotzen, aurrez aipatutako 10 milioi euroren kapital handitzea salbu, GFak izenpetutakoa. Egiten dituen inbertsioak sozietateak berak sortzen dituen baliabideen bitartez eta zorpetzearen bitartez finantzatzen dira. Honekin baterako taulak zorpetzeak eta negozio zifraren zenbateko garbiak izan duen bilakaera erakusten du:



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

BIDEGI, SA	Euroak milakotan	
	2015	2016
Ekitaldi itxieran erabilitako zorra.....	845.444	812.020
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	106.804	114.439
<i>Negozio zifraren/erabil. zorraren zenb. garb. % .....</i>	<i>% 12,6</i>	<i>% 14,1</i>

2016ko urterako GFeko aurrekontu orokorrak onartzen dituen 8/2015 Feko, abenduaren 23koak, Bidegi, SA foru merkataritza sozietatearentzat 2016ko abenduaren 31rako epe luzeko zorpetze muga 812 milioi euroan ezarri du.

#### IV.4 ONDORIOA

2016ko ekitaldian eragiketa arruntek eragindako emaitzak 3,2 milioi euroren igoera txiki bat izan du, nagusiki zerga itunduen diru-bilketa % 3,2 gehitu delako. Alabaina, Diruzaintza Geldikina, baliatu gabeko maileguez eragindako diru-sarrerak aintzat hartu gabe, 49,5 milioi euroan murriztu da. Murrizketa hau bat dator baliatutako zorpetzeak ere izan duen 55,9 milioi euroren murrizketarekin.

#### IV.5 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA ETA FINANTZAREN IRAUNKORTASUNA

Apirilaren 27ko 2/2020 Lege Organikoak, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoak, 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, oreka edo egiturazko superabit egoera modura eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura ulertzen direnak, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan, hurrenez hurren.

Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko txostena Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioari igorri zaio eta administrazio honek ez du salbuespenik adierazi.

#### GFA-REN MENDEKO DEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN SEKTOREA

Estatuko Administrazio Orokorraren Kontu-hartzaitzak ezarritakoari jarraiki, GFaren mendeko Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen duten erakundeak honako hauek dira:

- Foru administrazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia
- Foru Erakunde Autonomoak: Uliazpi Fundazioa eta Kabia.
- Merkataritzako Foru Sozietateak: IZFE, SA eta Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA.
- Partaidetutako Sozietateak: Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SA, Bic Gipuzkoa Berrilan, SA, Berroeta Aldamar, SL, Seed Gipuzkoa AKS, Erregimen Erraztukoa, SA, Ortzibia, SA eta Garaia Berrikuntza Gunea, S. Koop.





- Partzuergoak: Gipuzkoako Osabidezko Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Partzuergoa, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa.
- Fundazioak: Kiroldgi Fundazioa, Mintzola Fundazioa eta Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa.

## Gastuaren araua

Espainiar ekonomiaren epe ertaineko Barne Produktu Gordinaren hazkundearen erreferentziatzako tasa 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietarako, 2015eko uztailaren 10eko Ministroen Kontseiluaren Erabaki bitartez onartu zen eta 2016ko urterako % 1,8an finkatu zen. Tasa hau aurreko ekitaldiko aurrekontuaren gastu konputagarriarekin biderkatzen da, ezargarria den gastu muga eskuratzeko.

Gastu konputagarriak SEC10 terminoetan adierazitako enplegu ez finantzario modura definitzen dira, horietatik kenduta zorraren interesak, langabezia prestazioetan gastu ez aukerakoa, Europako Batasunetik edo beste administrazio publiko batzuetatik eratorritako helburudun funtsen bidez finantzatutako gastuaren zatia eta autonomia erkidegoei eta toki udalbatzei finantzaketa sistemei loturik egindako transferentziak.

2016ko ekitaldian arau hori ezartzeak 685,7 milioi euroren gastu zenbagarria erakusten digu, ekitaldi horretan ezargarria den 686,2 milioi euroren mugaren azpitikoa; honenbestez, bete egiten da aurreko paragrafoan aipatutako mugaketa.

## Zor publikoaren helburua

Arautegiak administrazio publikoen multzoaren zor publikoaren bolumenari BPG nazionalaren % 60ren pareko muga ezartzen dio, termino nominaletan adierazia, eta era honetara zati-banatzen da: administrazio zentrala (% 44), Autonomia Erkidegoen multzoa (% 13) eta Udalbatzen multzoa (% 3).

Zor publikoaren helburuari dagokionez, foru ogasunek duten berezitasunaren ondorioz beharrezkoa da Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordeak iritzia ematea, izan ere zor publikoaren helburua Barne Produktu Gordinaren ehuneko baten gainean finkatzen da; ordea, ehuneko hau ez da administrazio ezberdinen artean banatu (EAE eta foru aldundiak) eta honenbestez, ezin adieraz daiteke Gipuzkoako Foru Sektore Publikoak, SEC10 terminoetan, 2016ko urterako zor publikoaren helburua bete duen edo ez.

2016ko abenduaren 31n GFAREN mendeko indarreko zor publikoa 641,5 milioi euroena da (GFA: 569,9 milioi euro, Gipuzkoako Ur Kontsortzioa: 44,5 milioi euro, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SA: 16,9 milioi euro, Bic Gipuzkoa Berrilan, SA: 0,8 milioi euro eta Ortzibia, SL: 9,4 milioi euro).

## Aurrekontuaren egonkortasunaren helburua

Aurrekontuaren egonkortasun helburua 2015eko uztailaren 10eko Ministroen Kontseiluaren Erabaki bitartez onartu zen.

Kontu Orokorrean barne hartutako aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunari buruzko informazioak, “2016ko ekitaldiko Finantzaketa gaitasunari edo beharrari buruzko atalean”, guztira 36 milioi euroren finantzaketa gaitasuna islatzen du. Estatuko Administrazio Orokorrari aurrekontuaren egonkortasunari buruz igorritako informazioa honakoa da:

	Euroak milakotan			
	Sarrera ez finantz.	Gastu ez finantz.	Doiketak	Finantzaketa gaitas./behar.
GFA.....	4.345.542	(4.320.232)	2.349	27.659
Uliazpi Fundazioa.....	16.691	(17.211)	-	(520)
Kabia.....	7.345	(7.218)	-	127
Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA.....	940	(845)	-	95
IZFE, SA.....	25.632	(25.515)	-	117
GHP.....	6.271	(6.271)	-	-
Osabidezko Hezkuntzarako Kontsurtzioa.....	395	(399)	-	(4)
Gipuzkoako Ur Kontsurtzioa.....	7.400	(1.886)	-	5.514
Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SA.....	37.745	(34.012)	-	3.733
Mintzola Fundazioa.....	282	(460)	-	(178)
Kirolgi Fundazioa.....	2.527	(2.527)	-	-
Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa.....	731	(725)	-	6
Bic Gipuzkoa Berrilan, SA.....	1.970	(2.020)	-	(50)
Berroeta Aldamar, SL.....	531	(529)	-	2
Seed Gipuzkoa AKS, Erregimen Erraztukoa, SA.....	-	(36)	-	(36)
Ortizibia,SA.....	236	(248)	-	(12)
Garaia Berrikuntza Poloa, Koop.S.....	929	(1.419)	-	(490)
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.455.167</b>	<b>(4.421.553)</b>	<b>2.349</b>	<b>35.963</b>

## GFA-REN MENDEKO SOZIEKATE EZ FINANTZARIOEN SEKTOREA ETA ERAKUNDE FINANTZARIOEN SEKTOREA

Estatuko Administrazio Orokorraren Artekiritzak 2016ko urterako ezarritakoari jarraikiz, GFAREN mendeko Sozietate ez Finantzarioen Sektorea osatzen duten erakundeak honako hauek dira: Bidegi, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia, SA, SUESKOLA Gipuzkoa Fundazioa eta Gipuzkoako Urak, SA.

Sozietate ez Finantzarioen Sektorearen eta Erakunde Finantzarioen Sektorean barne hartutako erakundeak desoreka finantzarioko egoeran daudela esaten da ezargarriak zaizkien kontabilitateko planaren irizpideen arabera galerak dituztenean eta horiek saneatzeko baliabideen zuzkidura beharrezkoa denean, baliabide horiek eman behar dituen erakundearen egonkortasun eszenategian aurreikusi ez direnak. Definizio horren arabera, 201ko ekitaldian, erakunde guztiak finantza oreka egoeran daude.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KONTUAK

#### A. 2016-KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

Sarrerak	Eransk.	Aurrekontua			Eskubide. kitat.	Gauzat. kobrantsak	Kobr. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.-Zerga zuzenak .....	B7	1.955.963	-	1.955.963	1.954.663	1.954.663	-
2.-Zeharkako zergak .....	B7	2.336.618	-	2.336.618	2.207.704	2.207.704	-
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	B7	53.900	2	53.902	53.561	53.472	89
4.-Transf. eta dirul. arruntak .....	B8	108.022	371	108.393	122.991	67.697	55.294
5.- Ondare sarrerak .....		200	2	202	138	135	3
6.-Enajenación Inber. errealak .....		200	-	200	788	788	-
7.-Kapital dirulag. eta transf. ....	B8	4.629	227	4.856	5.696	5.400	296
8.-Finantza aktiboak .....	B9	12.450	10.000	22.450	911	651	260
9.-Finantza pasiboak .....	B10	62.000	-	62.000	62.000	62.000	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>4.533.982</b>	<b>10.602</b>	<b>4.544.584</b>	<b>4.408.452</b>	<b>4.352.510</b>	<b>55.942</b>

Gastuak	Eransk.	Aurrekontua			Oblig. aitort.	Gauzat. ordaink.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.-Langileria-gastuak .....	B3	107.800	-	107.800	104.608	104.607	1
2.-Gastu arrun. ondas. eta zerb. ....	B4	118.015	220	118.235	113.490	100.068	13.422
3.-Finantza gastuak .....	B10	11.200	(2.945)	8.255	4.677	4.212	465
4.-Transf. eta dirul. arruntak .....	B5	4.090.191	3.861	4.094.052	3.981.728	3.832.194	149.534
6.- Inbertsio errealak .....	B6	85.833	7.801	93.634	72.861	52.527	20.334
7.-Kapital dirulag. eta transf. ....	B5	46.218	1.665	47.883	42.867	28.652	14.215
8.-Finantza aktiboak .....	B9	11.950	-	11.950	11.116	11.116	-
9.-Finantza pasiboak .....	B10	62.775	-	62.775	62.775	62.775	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>4.533.982</b>	<b>10.602</b>	<b>4.544.584</b>	<b>4.394.122</b>	<b>4.196.151</b>	<b>197.971</b>

#### B. AURREKO EKITALDIETAKO SARRERA ETA GASTUEN HONDARRAK

Euroak milakotan

	Hasierako		(Kobr.)/ Ordaink.	Azken zorra
	zorra	Baliog.		
Zordunak .....	93.127	-	(57.937)	35.190
Hartzekodunak .....	(150.838)	-	150.711	(127)
<b>AURREKONTU ITXIAK</b>				



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

C. AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Aitortutako eskubideak .....		4.408.452
-Aitortutako obligazioak .....		(4.394.122)
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>		<b>14.330</b>
<b>Doiketak</b>		
Xahututako kredituak, atxiki gabeko diruzaintza geldikinarekin finantzatuak .....		10.351
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak .....		(308)
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze negatiboak .....		254
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA DOITUA (1)</b>		<b>24.627</b>
<b>EKITALDI ITXIEN AURREKONTU EMAITZA (2)</b>		<b>-</b>
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2)</b>		<b>24.627</b>

D. DIRUZAINZA GELDIKINA		Eransk.	Euroak milakotan
Diruzaintza eta aldi bateko finantza inbertsioak .....	B12		4.091
Aurrekontuko zordunak .....	B7.2		91.132
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	B11		140.652
Aurrekontuko hartzekodunak .....			(198.098)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	B11		(26.553)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA 2016.12.31-N</b>			<b>11.224</b>
Maileguetatik erabili gabeko saldoa kreditu kontu moduan.....	B10		99.400
<b>FINKATUTAKO DIRUZAINZA GELDIKIN ERABILGARRIA 2016.12.31-N</b>			<b>110.624</b>

E. KONPROMISO KREDITUEN EGIKARITZA		Euroak milakotan					
Kapitulua	Eransk.	2019				ALDIAK	
		2017	2018	eta hurr.	GUZTIRA	Baimendua	Erabilia
2.-Gastu arruntak ondasun eta zerbitz. ....	B4	1.055	601	311	1.967	1.368	1.368
4 Transf. eta dirul. arruntak.....	B5	16.307	1.025	1.163	18.495	11.351	11.304
6.- Inber. errealak .....	B6	36.803	19.898	9.915	66.616	59.533	58.988
7.- Kapital diru-lag. eta transf. ....	B5	44.825	41.240	12.475	98.540	92.582	92.429
<b>GUZTIRA</b>		<b>98.990</b>	<b>62.764</b>	<b>23.864</b>	<b>185.618</b>	<b>164.834</b>	<b>164.089</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

F. EGOERAREN BALANTZEAK 2016 eta 2015eko abenduaren 31n Euroak milakotan

	Eransk.	2016	2015		Eransk.	2016	2015
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>3.204.208</b>	<b>3.237.060</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>2.712.650</b>	<b>2.739.417</b>
Ibilgetu ukiezina.....	B6.2	28.660	27.419	Ekarrirako ondarea.....	B6.3	165.385	165.385
Ibilgetu materiala.....	B6.2	3.003.234	3.055.438	Sortutako ondarea.....	B6.3	2.538.641	2.565.568
Ibilgetuko inbertsioak.....	B6.2	523	67	Estaldua eragiketak.....	B6.3	-	(188)
Taldeko enpresetan partaid..	B9	115.108	105.264	Ondare hazkund. zerga gabe.....	B6.3	8.624	8.652
Epe luzeko finantza inberts.	B7.2	56.683	48.872				
				<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>429.434</b>	<b>474.843</b>
				Epe luzeko zorrak .....	B10	429.434	474.843
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>304.171</b>	<b>356.766</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>366.295</b>	<b>379.566</b>
Salgai dauden aktiboak.....		494	494	Epe laburreko zuzkidurak.....	B7.2	93.456	114.638
Kudeaketa eragik. zordunak	B7.2	158.928	206.489	Zorrak epe laburrera .....	B10	44.590	57.246
Beste zordun b.& kobr. knt. .	B11	140.650	129.565	Kudeaketa eragik. hartzekod. ....		198.097	150.838
Finan. inberts. epe labur.....		8	11	Hartzed. eta ordain. bst knt b. ....	B11	30.152	56.844
Eskud. eta best. akt. baliokid.	B12	4.091	20.207				
<b>AKTIBO GUZTIRA</b>		<b>3.508.379</b>	<b>3.593.826</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZT.</b>		<b>3.508.379</b>	<b>3.593.826</b>

G. 2016 eta 2015-EKO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA Euroak milakotan

	Eransk.	2016	2015
Zerga sarrerak.....		4.194.613	4.140.865
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak .....		129.228	143.529
Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea .....		3.465	3.363
Kudeak. arrunteko beste sarr. batz.....		54.894	27.799
Hornidura gehiegizkoak .....	B7.2	21.182	24.125
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>4.403.382</b>	<b>4.339.681</b>
Langileria-gastuak.....		(105.333)	(105.182)
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak .....		(4.030.302)	(3.947.986)
Hornidurak .....		(1.234)	(1.528)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk .....		(150.750)	(142.173)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	B6.2	(76.475)	(75.813)
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>(4.364.094)</b>	<b>(4.272.682)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>		<b>39.288</b>	<b>66.999</b>
Balioaren narriadura eta ibilgetu ez finantz. eta salgai dauden aktib. bestereng. emait.....		283	104
Beste kontusail ez arrunt batzuk .....	B7.1	(20.523)	(20.248)
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>19.048</b>	<b>46.855</b>
Finantza sarrerak.....		21.152	42.263
Finantza gastuak.....		(4.864)	(7.299)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo eta pasiboen besterentzeak .....	B7.2	(62.802)	(104.570)
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>(46.514)</b>	<b>(69.606)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>		<b>(27.466)</b>	<b>(22.751)</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V.2 FORU ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUAK

### V.2.1 ULIAZPI FUNDAZIOA

#### A. 2016-KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	Aurrekontua			Eskubide. kitat.	Kobrantzak	Kobr. gabea
	Hasier.	Aldak.	B.betik.			
3.-Tasak eta best. sarrerak .....	1.927	-	1.927	2.008	1.813	195
4.- Transferentzia arruntak .....	15.495	-	15.495	14.138	14.138	-
5.- Ondare sarrerak .....	1	-	1	-	-	-
7.- Kapital transferentziak .....	545	-	545	545	545	-
8.-Finantza aktiboak .....	400	-	400	47	47	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>18.368</b>	<b>-</b>	<b>18.368</b>	<b>16.738</b>	<b>16.543</b>	<b>195</b>

GASTUAK	Eransk.	Aurrekontua			Oblig. aitort	Ordain. Ordain.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.-Langileria-gastuak..... C1		12.719	-	12.719	12.252	11.777	475
2.-Ondasun arruntan erosk. eta zerb.....		4.704	-	4.704	4.524	3.895	629
6.- Inbertsio errealak .....		545	-	545	435	334	101
8.-Finantza aktiboak .....		400	-	400	90	90	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>18.368</b>	<b>-</b>	<b>18.368</b>	<b>17.301</b>	<b>16.096</b>	<b>1.205</b>

#### B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	Hasierako	(Kobr./ Ordaink.	Azken zorrra
	zorrra		
Zordunak .....	226	(16)	34
Hartzekodunak.....	(1.340)	-	2
<b>AURREKONTU ITXIAK</b>		<b>(16)</b>	

#### C. AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA

Euroak milakotan

Kitatutako eskubideak .....	16.738
-Aitortutako obligazioak .....	(17.301)
<b>EKITALDIAREN EMAITZA (1)</b>	<b>(563)</b>
Eskubide kitatuak baliogabetzea .....	(16)
Obligazio aitortuak baliogabetzea .....	-
<b>EKITALDI ITXIEN EMAITZA (2)</b>	<b>(16)</b>
<b>Doiketa finantzarioa (3)</b>	<b>8</b>
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3)</b>	<b>(571)</b>
<b>DIRUZAINZTA GELDIKINA 15/12/31n</b>	<b>1.357</b>
<b>DIRUZAINZTA GELDIKINA 16/12/31n</b>	<b>786</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

D. EGOERAREN BALANTZEAK 2016 eta 2015eko abenduaren 31n			Euroak milakotan		
	16.12.31	15.12.31		16.12.31	15.12.31
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>14.457</b>	<b>14.465</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>15.280</b>	<b>15.861</b>
Ibilgetu ukiezina.....	78	82	Ekarritako ondarea.....	5.835	5.835
Ibilgetu materiala.....	14.326	14.376	Sortutako ondarea.....	8.905	9.606
Finantza inbertsioak epe luzera.....	53	7	Egozteko dauden ondare gehikunt.....	540	420
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>2.484</b>	<b>3.212</b>	<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>1.661</b>	<b>1.816</b>
Zord. eta kobratz. beste kontu batzuk.....	198	182	Zorrak epe laburrera.....	11	11
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	37	39	Hartzekod. eta ordaintz. beste kontu batz.....	1.650	1.755
Eskud. eta best. aktibo likido baliok.....	2.249	2.991	Aldizkatzeagatiko doikuntzak.....	-	50
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>16.941</b>	<b>17.677</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.</b>	<b>16.941</b>	<b>17.677</b>

E. 2016 eta 2015eko ekitaldietako ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak milakotan	
		2016	2015
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak.....		14.691	15.546
Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea.....		1.973	2.078
Kudeak. arrunteko beste sarr. batz.....		35	29
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>16.699</b>	<b>17.653</b>
Langileria-gastuak.....		(12.252)	(12.156)
Kudeaketa arrunteko bst gastu batzuk.....		(4.524)	(4.522)
Ibilgetuaren amortizazioa.....		(616)	(627)
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>(17.392)</b>	<b>(17.305)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>		<b>(693)</b>	<b>348</b>
Beste kontusail ez arrunt batzuk		-	100
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>(693)</b>	<b>448</b>
Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo eta pasiboen besterentzeak.....		(8)	(14)
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>		<b>(8)</b>	<b>(14)</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>		<b>(701)</b>	<b>434</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V.2.2 KABIA

### A. 2016-KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	Aurrekontua			Eskubide. kitat.	Kobran.	Kobr. gabea
	Hasier.	Aldak.	B.betik.			
3.-Tasak eta best. sarrerak .....	2.822	-	2.822	2.754	2.510	244
4.- Transferentzia arruntak .....	4.807	-	4.807	4.544	4.181	363
7.- Kapital transferentziak .....	95	-	95	47	47	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>7.724</b>	<b>-</b>	<b>7.724</b>	<b>7.345</b>	<b>6.738</b>	<b>607</b>

  

GASTUAK	Eransk.	Aurrekontua			Oblig. aitort.	Ordain.	Ordain. gabea
		Hasier.	Aldak.	B.betik.			
1.-Langileria-gastuak..... C1		437	-	437	339	339	-
2.-Ondasun arruntan erosk. eta zerb.....		7.192	-	7.192	6.805	6.173	632
6.- Inbertsio errealak .....		95	-	95	74	42	32
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>7.724</b>	<b>-</b>	<b>7.724</b>	<b>7.218</b>	<b>6.554</b>	<b>664</b>

### B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	Hasierako		(Kobr.)/ Ordaink.	Azken zorra
	zorra	Baliogab.		
Zordunak .....	44	-	(44)	-
Hartzekodunak.....	(156)	-	156	-
<b>AURREKONTU ITXIAK</b>				

### C. AURREKONTU EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA

Euroak milakotan

Kitatutako eskubideak .....	7.345
-Aitortutako obligazioak .....	(7.218)
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>127</b>
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>127</b>
<b>DIRUZAINZTA GELDIKINA 15/12/31n</b>	<b>107</b>
<b>DIRUZAINZTA GELDIKINA 16/12/31n</b>	<b>234</b>

### D. EGOERAREN BALANTZEAK 2016 eta 2015eko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	16.12.31		15.12.31		
	16.12.31	15.12.31	16.12.31	15.12.31	
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>116</b>	<b>54</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>350</b>	<b>161</b>
lbilgetu ukiezina.....	36	17	Aurreko ekitaldietako emaitza.....	161	-
lbilgetu materiala .....	80	37	Ekitaldiaren emaitza .....	189	161
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>992</b>	<b>278</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>758</b>	<b>171</b>
Zord. eta kobratz. beste kontu batzuk .....	608	44	Zorrak epe laburrera .....	68	-
Eskud. eta best. aktibo likido baliok. ....	384	234	Hartzekod. eta ordaintz. beste kontu batz .....	690	171
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>1.108</b>	<b>332</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.</b>	<b>1.108</b>	<b>332</b>





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

E. 2016 eta 2015eko ekitaldietako ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA	Euroak milakotan	
	2016	2015
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak .....	4.592	533
Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea .....	2.753	217
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>7.345</b>	<b>750</b>
Langileria-gastuak .....	(340)	(102)
Hornidurak .....	(51)	(2)
Kudeaketa arrunteko bst gastu batzuk.....	(6.753)	(485)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(12)	-
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(7.156)</b>	<b>(589)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>189</b>	<b>161</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>189</b>	<b>161</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### V.3 MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEEN KONTUAK

A. BALANTZEAK 2016 eta 2015eko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Eransk.	IZFE, SA		BIDEGI, SA		Etorlur G.L., SA	
		2016	2015	2016	2015	2016	2015
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>2.876</b>	<b>2.645</b>	<b>1.241.221</b>	<b>1.245.588</b>	<b>6.596</b>	<b>7.435</b>
Ibilgetu ukiezina.....	D1	1.185	834	1.240.985	1.245.323	9	8
Ibilgetu materiala.....	D1	1.413	1.498	52	81	1.712	1.776
Ibilgetuko inbertsioak.....	D2	-	-	-	-	4.875	5.651
Taldeko enpresetan partaidetzak.....		174	174	-	-	-	-
Finantza inbertsioak epe luzera.....		86	104	184	184	-	-
Gerorat. zergagatiko aktiboak.....		18	35	-	-	-	-
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>11.510</b>	<b>11.990</b>	<b>101.225</b>	<b>83.899</b>	<b>11.431</b>	<b>17.819</b>
Izakinak.....	D2	14	11	-	-	9.897	16.707
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt ....		6.489	7.552	12.029	6.887	100	278
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	D3	2	2	43.212	54.931	10	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		117	308	-	-	2	1
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak		4.888	4.117	45.984	22.081	1.422	833
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>14.386</b>	<b>14.635</b>	<b>1.342.446</b>	<b>1.329.487</b>	<b>18.027</b>	<b>25.254</b>
<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>4.035</b>	<b>3.712</b>	<b>421.927</b>	<b>380.563</b>	<b>15.453</b>	<b>23.119</b>
Eskrituran jasotako kapitala.....	B9	439	439	10.720	720	21.604	21.604
Erreserbak.....		1.883	1.855	445.666	406.427	372	287
Aurreko ekitaldietako ondorioak.....		(282)	(462)	-	-	-	-
Ekitaldiaren emaitza.....		104	181	29.588	39.239	(7.623)	85
<b>Funts propioak</b>		<b>2.144</b>	<b>2.013</b>	<b>485.974</b>	<b>446.386</b>	<b>14.353</b>	<b>21.976</b>
Balio aldaketagatiko doiketak.....	D4	-	-	(64.047)	(65.823)	-	-
Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat. ....		1.891	1.699	-	-	1.100	1.143
<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>727</b>	<b>653</b>	<b>862.581</b>	<b>895.647</b>	<b>818</b>	<b>880</b>
Epe luzeko hornidurak.....	D1	-	-	23.386	16.794	-	-
Zorrak, kreditu erakundeekin epe luz. ....	D4	-	-	774.137	812.020	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak.....	D4	-	-	65.058	66.833	9	41
Atzeratutako zergengatiko pasiboak.....		727	653	-	-	428	444
Aldizkakotzeak epe luzera.....		-	-	-	-	381	395
<b>PASIBO ARRUNTA</b>		<b>9.624</b>	<b>10.270</b>	<b>57.938</b>	<b>53.277</b>	<b>1.756</b>	<b>1.255</b>
Epe laburreko zuzkidurak.....		-	55	-	-	25	25
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab. ....	D4	-	-	46.571	42.645	-	-
Epe laburreko bestel. zorrak.....		973	1.181	126	131	63	32
Merkat. hartz. eta ordaint. bte kntu batz ...		7.511	7.889	11.241	10.501	1.654	1.184
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		1.140	1.145	-	-	14	14
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.</b>		<b>14.386</b>	<b>14.635</b>	<b>1.342.446</b>	<b>1.329.487</b>	<b>18.027</b>	<b>25.254</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

B. 2016 eta 2015-EKO ekitaldietako GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Eransk.	IZFE, SA		BIDEGI, SA		Etorlur G.L., SA	
		2016	2015	2016	2015	2016	2015
Negozio zifraren zenbateko garbia.....		24.254	22.763	114.439	106.804	-	522
Abiango sustap. eta eraik. izak. bariatz. ....	D2	-	-	-	-	(6.814)	(4.181)
Aktiborako egindako lanak .....		-	-	7.934	7.974	-	4.248
Hornidurak .....		(13)	(59)	-	-	(37)	(67)
Bestelako ustiaketa sarrerak .....		65	22	-	-	780	688
Langileria-gastuak .....	D5	(9.424)	(9.295)	(979)	(1.137)	(477)	(422)
Bestelako ustiaketa gastuak .....	D6	(14.829)	(13.216)	(45.155)	(37.986)	(233)	(718)
Ibilgetuaren amortizazioa .....	D1	(961)	(901)	(37.692)	(37.662)	(159)	(158)
Ibilgetu ez finantz. diru-lag. egoztea .....		961	901	-	-	60	60
Narriadura eta ibilget. erag. emait. ....		-	-	-	-	(696)	-
Beste emaitza batzuk .....		68	(40)	57	9.037	(48)	112
<b>Ustiapenaren emaitza</b>		<b>121</b>	<b>175</b>	<b>38.604</b>	<b>47.030</b>	<b>(7.624)</b>	<b>84</b>
Finantza sarrerak.....	D1	-	-	2.828	2.652	1	1
Finantza gastuak.....	D4	-	-	(11.844)	(10.443)	-	-
<b>Emaitza finantzarioa</b>		<b>-</b>	<b>-</b>	<b>(9.016)</b>	<b>(7.791)</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>Emaitza zerga aurretik</b>		<b>121</b>	<b>175</b>	<b>29.588</b>	<b>39.239</b>	<b>(7.623)</b>	<b>85</b>
Mozkinen gaineko zerga.....		(17)	6	-	-	-	-
<b>EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA</b>							
<b>JARRAITUETATIK ERATORRITAKOA</b>		<b>104</b>	<b>181</b>	<b>29.588</b>	<b>39.239</b>	<b>(7.623)</b>	<b>85</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>		<b>104</b>	<b>181</b>	<b>29.588</b>	<b>39.239</b>	<b>(7.623)</b>	<b>85</b>



**ERANSKINAK****A. GIPUZKOAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN KONTU BATERATUAK****A. 2016-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO BATERATUA**

Euroak milakotan

KAPITULUA	Behin betiko aurrekontua	Eskubideak/Obligazioak
Zerga zuzenak .....	1.955.963	1.954.663
Zeharkako zergak .....	2.336.618	2.207.704
Tasak eta best. sarrerak.....	170.557	172.744
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak.....	109.052	123.143
Ondare sarrerak .....	11.965	11.940
Inbertsio errealeen besterentzea .....	200	793
Transferentziak eta kapital diru laguntzak .....	4.856	5.498
Finantza aktiboen aldak. ....	33.139	990
Finantza pasiboen aldak.....	62.000	62.000
<b>SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA</b>	<b>4.684.350</b>	<b>4.539.475</b>
Langileria-gastuak.....	132.586	128.079
Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa .....	181.882	169.943
Finantza gastuak.....	49.364	44.403
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak.....	4.073.859	3.962.582
Inbertsio errealak .....	84.064	65.084
Transferentziak eta kapital diru laguntzak .....	45.551	40.978
Finantza aktiboen aldaketa .....	20.845	1.221
Finantza pasiboen aldaketa.....	96.199	96.197
<b>GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA</b>	<b>4.684.350</b>	<b>4.508.487</b>
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA BATERATUA 2016</b>		<b>30.988</b>

	GFA	Uliazpi	Kabia	IZFE, SA	Bidegi, SA	Etorlur, SA	Doiketak/ Baliogab.	Guztira GLH
<b>ESKUBIDE AITORTUAK</b>	<b>4.408.452</b>	<b>16.738</b>	<b>7.345</b>	<b>25.577</b>	<b>132.380</b>	<b>781</b>	<b>(51.798)</b>	<b>4.539.475</b>
Zerga zuzenak .....	1.954.663	-	-	-	-	-	-	1.954.663
Zeharkako zergak .....	2.207.704	-	-	-	-	-	-	2.207.704
Tasak eta best. sarrerak.....	53.561	2.008	2.754	-	114.439	-	(18)	172.744
Transf. eta dirul. arruntak.....	122.991	14.138	4.544	64	-	552	(19.146)	123.143
Ondare sarrerak .....	138	-	-	24.254	7.936	229	(20.617)	11.940
Inbertsio errealeen besterentzea ...	788	-	-	-	5	-	-	793
Transf. eta kapital dirulag.....	5.696	545	47	1.227	-	-	(2.017)	5.498
Finantza aktiboen aldak. ....	911	47	-	32	-	-	-	990
Finantza pasiboen aldak.....	62.000	-	-	-	10.000	-	(10.000)	62.000
<b>KITATUTAKO OBLIGAZIOAK</b>	<b>4.394.122</b>	<b>17.301</b>	<b>7.218</b>	<b>25.523</b>	<b>115.312</b>	<b>809</b>	<b>(51.798)</b>	<b>4.508.487</b>
Langileria-gastuak.....	104.608	12.252	339	9.424	979	477	-	128.079
Ondasun arr.-zerb. erosk.....	113.490	4.524	6.805	14.858	38.562	316	(8.612)	169.943
Finantza gastuak.....	4.677	-	-	-	39.726	-	-	44.403
Transf. eta dirul. arruntak.....	3.981.728	-	-	-	-	-	(19.146)	3.962.582
Inbertsio errealak .....	72.861	435	74	1.226	2.623	16	(12.151)	65.084
Transf. eta kapital dirulag.....	42.867	-	-	-	-	-	(1.889)	40.978
Finantza aktiboen aldak. ....	11.116	90	-	15	-	-	(10.000)	1.221
Finantza pasiboen aldak.....	62.775	-	-	-	33.422	-	-	96.197
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>14.330</b>	<b>(563)</b>	<b>127</b>	<b>54</b>	<b>17.068</b>	<b>(28)</b>	<b>-</b>	<b>30.988</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

B. EGOERAREN BALANTZE BATERATUA 2016 eta 2015eko abenduaren 31n				Euroak milakotan	
AKTIBOA	16.12.31	15.12.31	PASIBOA	16.12.31	15.12.31
<b>AKTIBO EZ KORRONTEA</b>	<b>4.430.832</b>	<b>4.478.604</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>3.131.177</b>	<b>3.134.316</b>
Ibilgetu ukiezina.....	31.584	30.154	Ekarrirako ondarea.....	165.465	165.465
Ibilgetu materiala.....	4.260.183	4.316.731	Sortutako ondarea.....	3.021.135	3.026.210
Ibilgetuko inbertsioak.....	5.398	5.718	Estaldua eragiketak.....	(64.047)	(66.011)
Taldeko enpresetan partaidetza.....	76.332	76.488	Egozteko dauden ondare gehikuntza...	8.624	8.652
Finantza inbertsioak epe luzera.....	57.316	49.478			
Gerorat. zergagatiko aktiboak.....	19	35	<b>PASIBO EZ KORRONTEA</b>	<b>1.293.560</b>	<b>1.371.628</b>
			Epe luzeko hornidurak.....	23.386	16.793
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>426.063</b>	<b>466.105</b>	Epe luzeko zorrak.....	1.270.174	1.354.835
Izakinak.....	9.912	16.718			
Zord. eta kobratz. bst kontu batzuk..	313.746	343.631	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>432.158</b>	<b>438.765</b>
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	43.268	54.983	Epe laburreko zuzkidurak.....	93.481	114.663
Aldizkatzeagatiko doikuntzak.....	119	309	Zorrak epe laburrera.....	92.403	101.302
Eskud. eta b. aktibo lik. baliok. batz..	59.018	50.464	Hartz. eta ordaintz. beste kontu batz...	245.120	221.196
			Aldizkatzeagatiko doikuntzak.....	1.154	1.604
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>4.856.895</b>	<b>4.944.709</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>4.856.895</b>	<b>4.944.709</b>

C. 2016 ETA 2015-EKO EKONOMIA-ONDARE EMAITZAREN KONTU BATERATUA		Euroak milakotan	
	2016	2015	
Zerga sarrerak.....	4.194.613	4.140.865	
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak.....	129.255	143.370	
Salmenta garbiak, zerbitzu emakida, izakinen barietaz. eta ibilgeturako egindako lanak.....	119.438	116.406	
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk.....	63.091	36.020	
Hornidura gehiegizkoak.....	21.182	24.125	
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>4.527.579</b>	<b>4.460.786</b>	
Langileria-gastuak.....	(128.804)	(128.295)	
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak.....	(4.009.084)	(3.929.971)	
Hornidurak.....	(1.321)	(1.597)	
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	(201.672)	(179.636)	
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(115.916)	(115.162)	
<b>KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(4.456.797)</b>	<b>(4.354.661)</b>	
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>70.782</b>	<b>106.125</b>	
Ibilgetuaren emaitza.....	(413)	104	
Ekitaldi itxien emaitza.....	(20.399)	(11.152)	
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>49.970</b>	<b>95.077</b>	
Finantza sarrerak.....	21.155	42.271	
Finantza gastuak.....	(16.708)	(17.742)	
Aktiboari egotzitako finantza gastuak.....	2.826	2.645	
Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo eta pasiboan besterentzeak.....	(62.810)	(104.584)	
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>(55.537)</b>	<b>(77.410)</b>	
Mozkinen gaineko zerga.....	(17)	6	
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>(5.584)</b>	<b>17.673</b>	

Finantza egoera bateratuak eskuratzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen kontuak bateratuta, hau da, GFA, Uliazpi Fundazioa eta Kabia foru erakunde autonomoak eta IZFE, SA, Bidegi, SA eta Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA merkataritzako foru sozietateak.



## **B. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

### **B.1 ALDERDI OROKORRAK**

GFA lurralde izaerako administrazio publikoa da eta bere eskumenak azaroaren 25eko 27/1983 Legearen I. Tituluan, EAeko erakunde komunak eta bere lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoan, zehazten dira; eskumen horiek nagusiki dira Estatuarekin hitzartutako zergak kudeatzea eta eskumen eskusiboko edo beste erakunde batzuekin partekatutako zerbitzu jakin batzuk ematea: errepide sarea, sustapen ekonomikoa, gizarte ongizatea, nekazaritza, kultura eta ikuskapena eta zenbait alorretan tokiko sektoreari laguntza ematea.

GFAk bi erakunde autonomo eta merkataritzako hiru foru sozietate ditu 2016ko abenduaren 31n, beste enpresa eta entitate batzuetan partaidetza gutxienekoak izateaz gain, B.9an zehazten den moduan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak 2016an indarreko arautegiak agintzen duen egitura eta informazioa barne hartzen du eta Gobernu Kontseiluak 2017ko uztailaren 18an onetsi zuen, Gipuzkoako Batzar Nagusiek behin-betiko onetsi zain dagoela.

Ekitaldian zehar ezargarria den araudi nagusia honako hau da:

- 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoa.
- 51/2012 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, GLHko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.
- 8/2015 Foru Araua, abenduaren 23koa, 2016ko ekitaldirako GLHko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 8/1996 Foru Araua, uztailaren 9koa, GLHko Ondareari buruzkoa.
- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, GLHko Zergei buruzkoa.
- 38/2006 Foru Dekretua, abuztuaren 2koa, GLHko Zerga-bilketa Erregelamenduari buruzkoa.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## B.2 AURREKONTUA, AURREKONTUAREN ALDAKETAK ETA KONPROMISO KREDITUAK

Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrak 2016ko urterako abenduaren 23ko 8/2015 Foru Arau bidez onartzen dira.

### B.2.1 AURREKONTUAREN ALDAKETAK

Honekin baterako taulak gastu kapitulu bakoitzeko 2016ko ekitaldiko kredituen bariazioa xehakatzen du, ekitaldian onartutako aurrekontuko aldaketen ondorioz:

	Kreditu osagarriak		Transf. eta egokit. tekniko		Guztira
		Gaikuntzak	Positiboak	Negatiboak	
Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak.....	-	94	4.186	(4.060)	220
Finantza gastuak.....	-	-	-	(2.945)	(2.945)
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak.....	-	279	23.519	(19.937)	3.861
Inbertsio errealak .....	10.000	213	3.434	(5.846)	7.801
Transferentziak eta kapital diru laguntzak .....	-	16	11.113	(9.464)	1.665
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>10.000</b>	<b>602</b>	<b>42.252</b>	<b>(42.252)</b>	<b>10.602</b>

Aldundiko Gobernu Kontseiluak kreditu osagarri bat onartu du Diruzaintzako Geldikinaren kontura, 10 milioi euroren zenbatekoan, hartzekodunen konkurtsioan dagoen zerga zordun baten ondasun higiezinak esleitzeko eskubidea egikaritzeko, 2016ko ekitaldian egikaritu ez dena.

### B.2.2 KONPROMISO KREDITUAK

Honekin baterako taulak gastu kapitulu bakoitzeko 2016ko ekitaldiko konpromiso kredituen bariazioa xehakatzen du, ekitaldian onartutako aurrekontuko aldaketen ondorioz:

	Miles de euros					
	Hasierako aurrek.	2/2016 Foru Araua	Gobernu Kontseilua	Transf. eta egokit. tekniko		Guztira
				Positiboak	Negatiboak	
Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak.....	593	-	1.374	47	(47)	1.967
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak.....	18.488	-	1.157	2.788	(3.938)	18.495
Inbertsio errealak .....	44.616	19.170	2.830	203	(203)	66.616
Transferentziak eta kapital diru laguntzak .....	92.537	-	4.853	2.370	(1.220)	98.540
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>156.234</b>	<b>19.170</b>	<b>10.214</b>	<b>5.408</b>	<b>(5.408)</b>	<b>185.618</b>

2/2016 Foru Arauaren bitartez, konpromiso kreditu berriak sortzea onartu da, 19,2 milioi euroren zenbatekoan, GI-632 saihebidearen Antzuola-Bergara bide-zatia amaitzeko eraikuntza proiektuaren finantzaketa osatzeko.



2016ko ekitaldirako Aldundiaren Kontseiluak konpromiso kreditu berriak onartzeko muga, Foru Arau bidez onartutako kredituen % 10en pareko dena, 17,5 milioi eurorena da. Kontzeptu honen izenean onartutako zenbatekoa 10,2 milioi eurorena da.

### B.3 LANGILERIA GASTUAK

Ekitaldi itxieran kontzeptu eta plantillaren arabera xehakatutako langile gastuak honako hauek dira:

	GASTUA		Euroak milakotan	
	2016	2015	Plant.err. 12/31n	2015
Goi kargudunak.....	656	622	9	9
Behin-behineko langileak eta zuzendariak.....	3.952	3.493	66	63
Funtzionarioak .....	74.721	74.075	1.726	1.731
Lan kontratuko langile finkoak .....	1.718	1.694	49	50
Aldi-baterako lan kontratuko langileak.....	593	530	22	21
<b>Ordainsariak eta plantilla</b>	<b>81.640</b>	<b>80.414</b>	<b>1.872</b>	<b>1.874</b>
Gizarte Segurantzza .....	19.375	20.419		
Elkarkidetza .....	1.469	1.471		
Klase Pasiboak .....	312	364		
Erretiro sariak.....	1.216	1.352		
Pentsioak hitzarmen berezia.....	94	32		
Mediku-botika laguntza .....	47	28		
Aseguru pribatuak .....	453	409		
Bestelako gizarte gastuak.....	2	56		
<b>KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>104.608</b>	<b>104.545</b>		

#### Ordainsariak

2016ko urtarrilaren 12an Aldundiko Gobernu Kontseiluak honako erabaki hauek hartu ditu:

- 2014ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra arte oker ordaindutako hartzekodunak itzultzeko prozedura abiaraztea, Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren 2015eko irailaren 30eko epaia betearaziz, 226-2014 prozedura arruntean ebatzitakoaren arabera, zeinaren indarrez diputatuen kontseiluak 2014ko maiatzaren 20an hartutako Erabakia baliogabe uzten zen, GFAREN zerbitzura diharduten langileen 2013ko ordainsariekiko % 0,6ko igoera onartu zuena. Itzulketa, guztira 966.784 euroren zenbatekoduna, ekain eta iraileko nominen hartzekodunetik murriztuta gauzatu da eta “Tasak eta bestelako diru-sarrerak” kapituluan erregistratu da.
- GFAREN zerbitzura diharduten langileen ordainsariak 2013koekiko % 1 gehitzea 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Erabaki hauen edukia erakunde autonomo eta merkataritzako foru sozietateei ere badagokie.

## Kalte-ordainak

2016ko ekitaldian GFak 39 langileri guztira 1,2 milioi euroren sariak ordaindu dizkie (31ri aldeztu aurretiko erretiroagatik eta 8ri uko egiteko pizgarriengatik), banako 40.000 euroren mugarekin, GFako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoari jarraikiz, errenta salbuetsi modura aitortu dituela.

2016ko ekitaldian egin zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren aldaketak agintzen du langilearen lanuzteagatik kalte-ordainak salbuetsitako errentatzat hartzeko, administrazio publikoetako giza baliabideen plan estrategikoetatik eratorritakoak, Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 51. artikuluan aurreikusitako kausaren bat izan behar dutela oinarri, zeinak kaleratze kolektiboaren definitzen duen kausa ekonomiko, tekniko, antolaketazko edo ekoizpenekoetatik eratorritako modura. Giza Baliabideen Plan Estrategikoa GFako langile guztiei aplikatzen zaie, erretirorako legezko adinari dagokionez antzintasunari eta adinari dagozkion betekizun jakin batzuk betetzen baditu; hori dela eta, ez dira kaleratze kolektiboarekin parekagarri diren kausak gertatu eta honenbestez, ez dira Foru Arauan errenta salbuetsizat jotzeko finkatutako baldintzak betetzen.

## Plantilla

Hona hemen Lanpostu Zerrendaren, aurrekontuko plantillaren eta egiazko plantillaren egoera 2016ko ekitaldi itxieran:

	LZ	Aurrek. plantilla	Egiazko Plantilla
Funtzionarioak eta lan-kontratu finkoko eta aldizkako langileak ....	1.778	1.977	1.775
Behin-behineko langileak .....	33	22	32
	<b>1.811</b>	<b>1.999</b>	<b>1.807</b>
Goi kargudunak .....	E/E	35	43
Aldi-baterako lan kontratuko langileak .....	E/E	15	22
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.049</b>	<b>1.872</b>

Aurrekontuko plantilla modura barne hartu dira aldi bateko izaera duten kontratuak, besteak beste, errenta kanpainarako teknikarien programako bitarteko 97 kontratu, suhiltzaileak ordezkatzeko 55 kontratu eta Egogain egoitzarako 37 zaintzaile kontratu.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## B.4 ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUEN EROSKETAK

Ondasun arrunt eta zerbitzuetako erosketak gastuak ondotik xehakatutakoak dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	Obligazioak		D-O	Konpromiso k.
	2016	2015	2016	D fasea
Errentamenduak .....	1.517	1.451	-	-
Ibilgetua konpondu eta zaintzea .....	4.836	4.590	20	-
Bulegoko materiala .....	243	366	-	-
Hornidurak .....	6.858	7.366	24	-
Komunikazioak .....	2.556	2.250	-	-
Garraioak .....	552	629	2	-
Aseguru sariak .....	567	559	-	-
Tributuak .....	507	605	-	-
Hainbat gastu .....	853	1.525	-	-
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak .....	474	408	-	-
<u>Kanpoko enpresek egindako lanak</u>				
Laguntza emateko zerbitzuak (*).....	55.982	53.097	-	-
Azterlan eta irizpenak .....	6.109	6.198	77	263
Publizitatea eta propaganda.....	1.482	1.945	-	-
Informatika zerbitzuak .....	8.463	8.216	-	-
Eraikinak garbitzea.....	5.023	4.918	-	-
Hondartzak garbitzea.....	1.049	932	-	-
Kontratu soizo-kulturalak eta kiroletakoak .....	5.119	4.953	-	-
Segurtasuna.....	1.535	1.298	-	-
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk.....	6.224	5.013	185	1.105
Beste azpikontzeptu txikiago batzuk .....	3.541	2.226	150	-
<b>KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>113.490</b>	<b>108.545</b>	<b>458</b>	<b>1.368</b>

(\*): Laguntza-zerbitzuek eragindako gastuek 2016ko ekitaldian kapituluko gastu osoaren % 49,3 egin dute (% 48,9 2015ean).



## B.5 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZA KORRONTEAK ETA KAPITALEZKOAK

Hona hemen kapitulu hauei dagokienez, ekitaldian aitortutako eta gauzatzeko dagoen erabilitako gastuaren xehakapena; baita, datozen ekitaldietarako erabilitako konpromisoak ere:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan					
	KORRONTEAK			KAPITALEZKOAK		
	Obligazioak	Konpr.Kred.		Obligazioak	Konpr.Kred.	
	D-O	D fasea		D-O	D fasea	
<b>Erakunde konpromisoak (ikus B.5.1)</b>	<b>3.612.214</b>	-	-	-	-	-
Izendunak .....	4.263	-	74	8.817	334	79.230
Gobernu kontseiluak edo diputatuak emandakoak	18	-	-	3.399	-	-
Deialdi bidez emandakoak .....	4.112	44	852	5.351	112	920
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2) .....	16.963	-	-	-	-	-
Etterako laguntza zerbitzua .....	12.018	-	(*)3.016	-	-	-
<b>Gipuzkoako toki entitateak</b>	<b>37.374</b>	<b>44</b>	<b>3.942</b>	<b>17.567</b>	<b>446</b>	<b>80.150</b>
Izendunak.....	12.566	-	183	3.110	-	-
Gobernu kontseiluak edo diputatuak emandakoak	926	-	488	400	375	1.475
Deialdi publiko bidez emandakoak.....	6.783	233	2.720	4.100	3	2.410
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2) .....	27.315	-	-	-	-	-
<b>Enpresa pribatuak</b>	<b>47.590</b>	<b>233</b>	<b>3.391</b>	<b>7.610</b>	<b>378</b>	<b>3.885</b>
Izendunak .....	18.729	-	1.224	2.555	-	120
Gobernu kontseiluak edo diputatuak emandakoak	1.500	-	199	998	-	100
Deialdi publiko bidez emandakoak.....	17.513	34	2.548	11.147	128	7.071
Itundutako jarduerak (ikus B.5.2) .....	95.231	-	-	-	-	-
Gizarte zerbitzuak .....	91.190	-	-	-	-	-
<b>Irabazi asmorik gabeko famil. eta erak.</b>	<b>224.163</b>	<b>34</b>	<b>3.971</b>	<b>14.700</b>	<b>128</b>	<b>7.291</b>
Uliazpi .....	14.088	-	-	545	-	-
Kabia .....	4.504	-	-	47	-	-
IZFE, SA .....	-	-	-	1.297	-	-
Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA.....	550	-	-	-	-	-
<b>Erak. auton. eta Foru Sekt. Publikoari transfer.</b>	<b>19.142</b>	-	-	<b>1.889</b>	-	-
Batzar Nagusiak .....	6.994	-	-	-	-	-
Txartel bakarra: Kalteordainak .....	31.395	82	-	-	-	-
Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren.....	-	-	-	(**)1.000	-	(**)1.048
Bestel. transferentziak eta diru-laguntzak:.....	2.856	10	-	101	-	55
<b>Bestel. transferentziak eta diru-laguntzak:</b>	<b>41.245</b>	<b>92</b>	-	<b>1.101</b>	-	<b>1.103</b>
<b>KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>3.981.728</b>	<b>403</b>	<b>11.304</b>	<b>42.867</b>	<b>952</b>	<b>92.429</b>

(\*): Etterako laguntza zerbitzuaren konpromiso kreditua, 3 milioi eurorena, toki entitateek 2016ko laugarren hiruhilekoan egin beharreko gastuari dagokio, GFAk 2017an erregistratu duena.

(\*\*): Diputatuak Gobernu Kontseiluak 2016ko urriaren 11n erabaki zuen Pasaiaiko Portuko Agintaritzari 2 milioi euro ordaintzea (milioi 1, 2016an eta gainerakoa 2017an), erakunde horrek 2009an egindako erreklaizazioak kitatzeko, Pasaiaiko "La Herrera Norte" eremuan jarduerak jakin batzuei zegokienez katastro balio eta kanonen minorazioen kontzeptuan.

### B.5.1 ERAKUNDEARTEKO KONPROMISOAK

Kontzeptu honetan barne hartzen dira GFak Kupo kontzeptuan Estatuari egiten dizkion ekarpenak, bere gain hartu gabeko karga eta sarreraren arteko aldeetatik, EAeko Administrazio Orokorrari aurrekontuak finantzatzeko ekarpen modura egiten dizkionak, eta udalei Udal Finantzaketarako Foru Funts modura egindakoak. EAERI eta udalei egindako ekarpenak GFak itunpeko zergen kontzeptuan egindako diru-bilketaren banaketa modura kalkulatu dira eta honenbestez, zenbatekoa diru-bilketa horri hertsiki loturik dago. Kupoaren zenbatekoa ez ezik, Administrazio Orokorrari egiten zaion ekarpena ere Autonomia Erkidego mailan zehazten dira.

	Euroak milakotan			
	GASTUA		DIRU-SARR.	
	2016	2015	2016	2015
<b>ERAKUNDEARTEKO KONPROMISOAK</b>				
Ekitaldiko Kupoak .....	247.964	266.753	-	-
Aurreko ekitaldiko kupoak likidatzea .....	-	-	14.774	14.495
<b>ESTATUARI KUPOA</b>	<b>247.964</b>	<b>266.753</b>	<b>14.774</b>	<b>14.495</b>
Ekarpen Orokorra .....	2.729.022	2.688.553	14.491	50.155
Ertzaintza .....	10.332	10.457	-	-
Doiketa funts orokorra .....	10.219	8.797	43.914	31.513
Abal publikoen aparteko programa .....	1.681	502	-	-
Eskumen berriak .....	154.094	138.245	-	-
<b>EAE-RI EKARPENAK</b>	<b>2.905.348</b>	<b>2.846.554</b>	<b>58.405</b>	<b>81.668</b>
Udal Finantzaketarako Foru Funtsa .....	458.902	437.002	9.566	-
<b>UDALEI EKARPENAK</b>	<b>458.902</b>	<b>437.002</b>	<b>9.566</b>	<b>-</b>
<b>ERAKUNDEEN KONPROMISOAK GUZTIRA</b>	<b>3.612.214</b>	<b>3.550.309</b>	<b>82.745</b>	<b>96.163</b>

### Estatuari kupoak

Urriaren 25eko 29/2007 Legeak arautzen du, 2007-2011 bosturtekorako Euskadiko Kupoak kalkulatzeko metodologia onartzen duenak, zeina indarraldia iraungi ostean eta aipatutako Legearen amaierako azken xedapenari jarraikiz, zuzenean luzatu den.

GFak gastu modura erregistratu ditu 2016ko ekitaldian Eusko Jaurlaritzak jakinarazitako zenbatekoak, Estatuari ordaindu beharreko Kupoaren maiatz, irail eta abenduko epeei dagozkienak; horiek guztiek 248 milioi euro egiten dituzte; eta sarrera modura erregistratu ditu 2015eko ekitaldiko Kupoaren likidazioak, 14,8 milioi euroren zenbatekoan. 2017ko maiatzean 2016ko ekitaldia kitatu da eta GFak 14 milioi euroren kobratzeko saldoa du, 2017an sarrera modura erregistratu dena.

Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Herrikoaren artean Kupoak kalkulatzeko dauden desadostasunen ondorioz, bi administrazioen arteko finantza fluxuetan atxikipenak egiten dira. 2016ko ekitaldi itxierako egoera honako hau da:

- GFak "Transferentzia arruntek eragindako sarrerak" kapituluaren 27,7 milioi euro erregistratu ditu (ikus B.8) Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako bermatutako gutxieneko babes mailaren finantzaketa kontzeptuan (25,3 milioi



euro 2016ari dagozkio eta 2,4 milioi euro 2015eko ekitaldiaren likidazioari). Kopuru hauek kobratzeko daude 2016ko ekitaldi itxieran, 2014 eta 2015eko ekitaldietako zenbait saldoekin batera, hurrenez hurren 10,3 eta 24,8 milioi eurorenak; horrek kobratzeko 62,8 milioi euroren saldoa egiten du guztira eta ez da inongo zuzkidurarik erregistratu horri aurre egiteko.

- GFAk ez du sarrera modura erregistratzen Estatuak atxikitako BEZaren doiketa kontzeptuan duen % 32,98ko partaidetza, guztira 599,8 milioi euroren zenbatekoan, zerga sarreretan kutxa irizpidea aplikatzen delako. Atxikitako diru kopuru onek GFarentzat 197,8 milioi euro egiten ditu (ikus B.7.2).

### Euskal Autonomia Erkidegoari finantza ekarpenak

Martxoaren 23ko 2/2007 Legeak arautzen du, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoak, zeina indarraldia iraungi ostean eta aipatutako Legearen azken xedapenari jarraikiz, zuzenean luzatu den.

EAEri egin beharreko ekarpenak, zergen diru-bilketa abiaburu hartuta, bi banaketa-molderen arabera zehazten dira:

- Banaketa bertikalaren eredua: EAEko hiru lurralde historikoetako Ogasun Nagusiek jaso beharreko kopurua finkatzen du, euren gain hartutako eskumenen arabera (% 70,04) eta ekarpen orokorra deitzen zaio.
- Banaketa horizontalaren eredua: Aurreko atalean adierazitako ekarpen orokorra behin finkatu ondoren, ekarri beharreko koefizientea ematen da, zeina lurralde bakoitzaren errentarekiko (% 70) eta ahalegin fiskalarekiko (% 30) modu proportzionalen zehazten den. Ekitaldian aplikatu diren ehunekoak izan dira: % 16,38 Arabarentzat, % 50,64 Bizkaiarentzat eta % 32,98 Gipuzkoarentzat.

2016ko ekitaldiko Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpen orokorraren eta egokitzapenerako funts orokorraren likidazioa 2017ko otsailean egin du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak eta GFaren aldeko izan da; bada, 2016ko ekitaldiko transferentzia arruntek eragindako sarrera modura erregistratu da, hurrenez hurren 14,5 eta 43,9 milioi euroren zenbatekoan (ikus B.8).

### Udal Finantzaketarako Foru Funtsa

Martxoaren 23ko 2/2007 Legeak, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoak, indarraldiaren ostean eta aipatu Legearen azken xedapenari jarraikiz zuzenean luzatu denak, laugarren xedapen gehigarrian gomendatzen du toki entitateek itunpeko sarreretatik eratorritako baliabideen % 54,7ko gutxieneko partaidetza izatea.

GFAn azaroaren 23ko 15/1994 FAk, Udal Finantzaketarako Foru Funtza arautzen duenak agintzen du udalerriek itunpeko zergen kontzeptuko sarreretan izango duten partaidetza kalkulatzeko ehunekoa % 58koa izango dela.

2016ko ekitaldiko Udal Finantzaketarako Foru Funtzari egindako ekarpena 449,3 milioi euroena izan da, Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2017ko otsailaren 14an 2016ko ekitaldiari dagokion likidazioa egin ostean; saldo horren arabera, GFAk 9,6 milioi euroren saldoa du kobratzeko (ikus B.8). Likidazio hau kobratzeko dagoen sarrera modura erregistratu da 2016ko ekitaldian.

## B.5.2 LAGUNTZA-ZERBITZUAK ETA GIZARTE-POLITIKAKO HITZARMENAK

GFAk gizarte zerbitzuetan egindako gastua 2016ko ekitaldian era honetara zati-banatzen da:

- Laguntza-zerbitzuak, “Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa” kapituluaren erregistratuak 56 milioi euroren zenbatekoan. Egindako gastua ondasun eta zerbitzuen kontratazioaren araudiak arautzen du eta GFAREN jabetzako zentroetan emandako zerbitzuei dagokie (ikus B.4).
- Gizarte zerbitzuetako hitzarmenak, “Transferentzia arruntak” kapituluaren erregistratuak, 139,5 milioi euroren zenbatekoan. Egindako gastua hitzarmenaren figurak babesten du eta GFARENaz besteko zentroetan emandako zerbitzuei dagokie.

Hona hemen hitzartutako gastuaren xehakapena itunpeko jardueraren eta jarduera zerbitzu-emaiaren arabera bereizita:

	GUZTIRA	Euroak milakotan		
		Toki entitateak	Enpresa pribatuak	Irabazi asmor. gabeko erak.
Adinekoen egoitzak.....	56.926	8.754	17.478	30.694
Egoitzetako unitate psikogeriatrikoak .....	8.319	1.399	3.469	3.451
Egoitzetako defizitaren estaldura.....	950	549	-	401
<b>Adinekoen egoitzak</b>	<b>66.195</b>	<b>10.702</b>	<b>20.947</b>	<b>34.546</b>
Desgaituei arreta eta zaintza.....	25.024	-	-	25.024
Buru-nahastea dutenen egoitzak eta eguneko zentroak .....	6.348	-	-	6.348
<b>Desgaitasuna</b>	<b>31.372</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>31.372</b>
<b>Adinekoen eguneko zentroak</b>	<b>15.203</b>	<b>6.232</b>	<b>4.875</b>	<b>4.096</b>
Gizarteratzea (ostatu ematea, progr. eta egun. zentr.)	13.587	-	-	13.587
Adingabeen zaintzarako zentroekiko hitzarmena	8.466	-	-	8.466
Adinekoei arreta sozio-sanitarioa eta zaintza	2.936	-	-	2.936
L-Sendian, atsedeneko egoitzak eta asteburuko egonaldia	1.750	29	1.493	228
<b>GIZARTE ETA LAGUNTZA PRESTAZIOAK GUZTIRA</b>	<b>139.509</b>	<b>16.963</b>	<b>27.315</b>	<b>95.231</b>



### B.5.3 GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOA

GFaren 2016ko ekitaldiko aurrekontu likidazioak Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari emandako diru-laguntzak jasotzen ditu, 7/2008 FAn aurreikusitako goi mailako sareko azpiegituren kostuaren % 33 finantzatzeko, 6,3 milioi euroren zenbatekoan (2016ko abenduaren 31n emandako zenbateko metatua 46,9 milioi eurorena da); konpromiso kredituen egoerak, berriz, 77,8 milioi euroren zenbateko konpromisoak barne hartzen ditu.

Emandako konpromiso gehi diru-laguntza metatuen guztizkoa, 124,7 milioi euro, egikaritzea aurreikusitako azpiegitura guztien % 33 da. Honela, bada, 2017ko ekainaren 13ko Aldundiko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren aurrekarietan, zeinaren indarrez 2017ko diru-laguntza ematen den eta diru-laguntza arautzen duten baldintza berriak finkatzen diren, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren egungo egoera juridikora egokituak, inbertsioen guztizko kopurua 376 milioi euroan kuantifikatzen da; inbertsio horiek dira: emakidadunak egikaritu beharreko obren aurreikuspenak, 238,9 milioi euroan; gaurdaino abiarazitako inbertsioak, 73,6 milioi euroan; eta gauzatzeko dauden inbertsioak, 63,5 milioi euroan.

Abenduaren 23ko 8/2016 Faren zortzigarren eta bederatzigarren xedapen gehigarriek, 2017ko urterako Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak onartzen dituztenek, agintzen dute Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala 2002-2016 (GHHKPI) eta aurrerapen agiria 2008-2016, abenduaren 23ko 7/2008 Faren bitartez onartutakoak, oso-osorik aplikatuko direla bi dokumentuetan aurreikusitako zehaztapenak erabat bete eta azpiegiturak guztiz egikaritzen diren arte; gainera, aurrez aipatutako 7/2008 Foru Arauaren 5. artikulua aldarazten dute eta agintzen dute “GFAk Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eskumeneko dituen goi mailako azpiegitura kostuen % 33ren pareko zenbatekoan finantzatuko duela, foru arau honen bidez onartutako plangintzan jasotakoak”.

2017ko ekaineko Aldundiko Gobernu Kontseiluak onartutako diru-laguntza arautzen duten baldintza berrietan agintzen da “... diru-laguntzaren norakoa bermatzearren, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak azpiegiturretan jada egikaritutako edo aurreikusitako inbertsioak daudela egiaztatuko duela, betiere guztira emandako diru-laguntzen guztizkoak ezin gaindituko duela zuzenean nahiz zeharka egikaritutako edo aipatutako plangintzan aurreikusitako azpiegituren kostuaren % 33”.

2016ko ekitaldiko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Kontu Orokorren Memoriak, diru-laguntzei buruzko 7. oharrean honako hau adierazten du: “2016ko abenduaren 31n GFAk hasiera batean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari emandako aipatutako diru-laguntzetatik 25,3 milioi euro inguru, 7/2008 FAn aurreikusitako azpiegituren guztizko balioaren behin betiko justifikazioari atxikirik geratu ziren”.

GFAk 2011n Konpromisoen Agiri bat izenpetu zuen, zeinaren bidez finantzaketa kontratuen esparruan hainbat obligazio bere gain hartu zituen; GHK-k berretsi egin behar zuen agiri hori GLHan hiri hondakinen azpiegituren eraikuntza eta martxan jartzea finantzatzeko, GHHKPIin aurreikusitakoak; konpromiso hauek 7/2008 FAn finkatutakoak dira. Kontratu hauek izenpetu dituen erakundea GHK, SAU da, bitarteko sozietatea eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoaren berezko baliabide dena. 2015eko ekitaldian



Epeleko instalazioen azpiegiturentzat izenpetutako finantzaketari dagokionez, konpromiso gutun osagarri bat gauzatu zen. 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorren Memoriak konpromiso hauen berri ematen du.

## B.6 INBERTSIO ERREALAK, IBILGETUA ETA ONDARE GARBIA

### B.6.1 INBERTSIO ERREALAK

Hona hemen Inbertsio errealetako aitortutako obligazioen, ekitaldian egikaritzeko dauden konpromisoen eta datozen ekitaldietarako hitzartutako kredituen xehakapena:

KONTZEPTUA	Obligazioak	Euroak milakotan	
		D-O 2016	Konpromiso k. D fasea
Orubeak eta landa sailak .....	239	-	-
Eraikinak .....	4.140	211	5.537
Errepideak, bideak eta pistak.....	46.164	2.054	50.337
Eraikuntza bereziak .....	729	-	137
Makineria, instalak. eta tresneria .....	1.613	11	-
Garraio gaiak .....	911	-	319
Altzariak eta bulego gaiak.....	368	-	-
Aplikazio informatikoak .....	13.024	11	1.410
Arte eta kulturako inbertsioak .....	704	-	-
Obrak eta instalakuntzak besteren ibilgetuan .....	4.142	-	1.248
Obrak eta instalakuntzak jasotako besteren ibilgetuan .....	292	-	-
Beste ibilgetu material bat.....	2	-	-
Ibilgetu ez-materiala.....	533	-	-
<b>KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>72.861</b>	<b>2.287</b>	<b>58.988</b>

“Errepideak, bideak eta pistak” kontzeptuak 2016ko ekitaldian aitortutako obligazioen % 63 egiten du eta datozen ekitaldietarako hitzartutako kredituen % 85. Bestalde, azpimarratzekoak dira informatikako aplikazioetan egindako inbertsioak, 12 milioi euroren zenbatekoan eta 1,4 milioi euroren konpromiso kredituak, IZFE, SAK egindako fakturazioei dagozkienak.

2016ko ekitaldi itxieran baliaitutako konpromiso kredituen zenbatekotik azpimarratzekoak dira hauei dagozkienak:

- 2013ko ekitaldian erositako Peñafiorida eraikinaren ordainketa geroratu, 2 milioi euroren zenbatekoan.
- GI-632 saihezbideko Antzuola-Bergara bide-zatian lanak, 47,8 milioi euroren zenbatekoan.

Aurrekontuan aitortutako obligazioak, 72,9 milioi eurorenak, ondare kontabilitatean kontzeptu esanguratsuenetan islatzen dira, era honetara:

- Ibilgetu material eta ukiezineko altak, hurrenez hurren guztira 13,9 eta 13,4 milioi euroren zenbatekoan (ikus B.6.2).
- Nagusiki errepideetan egindako konponketengatiko inbertsio errealak, ondare kontabilitatean gastu modura erregistratu direnak, 44,1 milioi euroren zenbatekoan (ikus B.13).

## B.6.2 IBILGETU UKIEZINA, MATERIALA ETA HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK

Ekitaldi itxieran Ibilgetu ukiezin, material eta higiezinetakoko inbertsioen saldoak honako hauek dira:

	Euroak milakotan	
	16.12.31	15.12.31
Ibilgetu ukiezina .....	28.660	27.419
Ibilgetu materiala.....	3.003.234	3.055.438
Higiezinetakoko inbertsioak.....	523	67
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.032.417</b>	<b>3.082.924</b>

Egoeraren Balantzeko kontu-sail hauek 50,5 milioi euroren zenbateko garbiarekin murriztu izana honako hauei dagokie, kontu-sail esanguratsuenetan:

- Ibilgetu material eta ukiezineko altak, hurrenez hurren guztira 13,9 eta 13,4 milioi euroren zenbatekoan (ikus B.6.1).
- 2016ko ekitaldiko amortizazioa, 76,5 milioi euroren zenbatekoan.

GFAREN ibilgetu material eta ukiezina, 2016ko ekitaldi itxieran 3.031,9 milioi euroren saldoa zuena, ez dago hainbat kontzeptu banaka xehakaturik jasoko dituen inbentario bidez euskarrিত, guztira 1.967,9 milioi euroren zenbatekoan; hona hemen banakatzea:

- Erabilera orokorrera emandako azpiegiturak, 1.433 milioi euroren amortizazio kostu garbiarekin balioztatuak eta 2012ko ekitaldia baino lehenago egikarituak, zeinak GLHren Foru Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartu zuen abenduaren 28ko 51/2012 FD indarrean sartu aurretik ibilgetu materialera eskualdatu ziren. Ez dago saldo hau euskarrিতuko duen ondasun-zerrendarik eta ondasunen izaera aintzat hartuta, komenigarria litzateke horiek arautzea, kontu-sail horiek ibilgetutik kenduz.
- 51/2012 FD indarrean sartu ostean egikaritutako azpiegiturak “Abian diren ibilgetu materialak” idazpuruan erregistratzen dira eta 2016ko abenduaren 31n 92,2 milioi euroren saldoa dute. Ez dago saldo hau euskarrিতuko duen inbentariotik eta amaitutakoak ez dira ibilgetu materialera aldatu.
- GFak gauzatutako obra hidraulikoak, uren zerbitzua kudeatzen duten mankomunitate eta partzuergoekin batean finantzatzen direnak; GFatik azpiegiturak lagapenean jasotzen dituzte. GFAREN ibilgetuaren kostu garbiaren saldoa 403,7 milioi eurorena da.

- Ibilgetuko beste kontu-sail batzuek ere ez dute inbentarioan xehakapenik; guztira 39 milioi euroren zenbatekoa egin dute:

	Euroak milakotan	
	Kostua	Amortizazio funtsa
Aplikazio informatikoak.....	205.661	179.400
Ikerketa eta garapenean inbertsioa.....	35.936	33.984
<b>Ibilgetu ukiezinaren guztizko partziala</b>	<b>241.597</b>	<b>213.384</b>
Makineria.....	8.905	7.914
Tresneria.....	16.503	14.936
Bestelako instalakuntzak.....	12.670	11.315
Ekipoak eta segurtasuneko elementuak.....	4.379	3.836
Irudia eta soinua transmititzeko ekipoa.....	7.571	7.212
Altzariak.....	30.869	26.773
Informazio prozesuetarako ekipoa.....	16.694	16.052
Beste ibilgetu material bat.....	18.189	16.986
<b>Ibilgetu materialaren guztizko partziala</b>	<b>115.780</b>	<b>105.024</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>357.377</b>	<b>318.408</b>

### B.6.3 ONDARE GARBIA

2016ko ekitaldian Ondare garbiaren kontuek izan duten mugimendua ia osorik 2016ko ekitaldiko emaitza negatiboarekin bat dator.

	Euroak milakotan	
	31.12.16	31.12.15
<b>Ekarrirako ondarea</b>	<b>165.385</b>	<b>165.385</b>
<b>Sortutako ondarea</b>	<b>2.538.641</b>	<b>2.565.568</b>
Aurreko ekitaldietako emaitza.....	2.565.568	2.588.319
Ekitaldiaren emaitza.....	(27.466)	(22.751)
Aurreko ekitaldietako emaitzetan altak.....	539	-
<b>Estaldura eragiketak</b>	<b>-</b>	<b>(188)</b>
<b>Egozteko dauden ondarearen gehikuntzak</b>	<b>8.624</b>	<b>8.652</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.712.650</b>	<b>2.739.417</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## B.7 SARRERAK, ZORDUNAK ETA ZERGA HARTZEKODUNAK

### B.7.1 ZERGA SARRERAK

2016ko ekitaldian aitortutako zerga sarrerak honako hauek izan dira:

	Euroak milakotan	
	ESKUBIDE AITORTUAK	
	2016	2015
Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zerga.....	1.561.946	1.512.154
Zorpetutako interes iraungi gabeak .....	8.688	-	8.688
<b>Kreditu erakundeekiko zorrak guztira</b>	<b>46.571</b>	<b>774.137</b>	<b>820.708</b>
Finantza deribatuak.....	-	65.058	65.058
<b>Epe luzeko bestelako zorrak guztira</b>	<b>-</b>	<b>65.058</b>	<b>65.058</b>

- Bidegi, SAK interes tipoaren gaineko swap finantzarioak baliatzen ditu banku sindikazioaren maileguan interes tipoaren fluktuazioen aurrean duen arriskua kudeatzeko. Eragiketa hauekin lotutako Ondare Garbiaren eta Egoeraren Balantzeko Pasiboaren kontuak honako hauek dira:

Euroak milakotan			
EGOERAREN BALANTZEA	2016	2015	Bariazioa
Balio aldaketagatiko doiketak.....	(64.047)	(65.823)	1.776
Finantza deribatuak.....	65.057	66.833	(1.776)
Bestelako txikiago batzuk.....	1	1	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.011</b>	<b>1.011</b>	<b>-</b>

- Europako Inbertsioen Bankuko maileguek GFaren abala dute eta 2016ko ekitaldi itxieran 455 milioi euroren ordaintzeko saldoa dute (ikus B.10).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Bidegi, SAREN finantza gastuak 2016ko ekitaldian honako hauek dira:

Euroak milakotan			
	Emaizetara egotziak	Kapitalizatuak	GUZTIRA
Maileguengatiko finantza gastuak.....	8.174	19.241	27.415
Swapengatiko finantza gastuak.....	3.670	8.640	12.310
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.844</b>	<b>27.881</b>	<b>39.725</b>

## D.5 LANGILERIA GASTUAK

Hona hemen merkataritzako foru sozietateen 2016ko ekitaldi itxieran Langile gastuen eta plantillaren xehakapena eta aurreko ekitaldiarekiko konparaketa:

Euroak milakotan						
SOZIETATEA	Langileria gastuak		Plantilla guztira		Goi Zuzendaritza	
	2016	2015	2016	2015	2016	2015
IZFE, SA .....	9.424	9.295	(*)153	(*)147	1	1
Bidegi, SA.....	979	1.137	(**) 17	(**) 17	2	2
Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA.....	477	422	9	8	1	-

(\*): 2016/12/31n 10 langilek % 25en lanaldi partzialeko kontratuak dituzte (txandakako kontratuak); (2015ean 3 langile ziren).

(\*\*): Izendapen askeko 2 lanpostu barne hartzen dira, goi zuzendaritzako 2 lanpostuz gainera.

## D.6 BESTELAKO USTIAPEN GASTUAK

Saldo esanguratsuak dituzten merkataritzako bi sozietateentzat Enpresa Sektore Publikoaren 2016ko ekitaldiko Beste ustiapen gastu batzuen xehakapena honakoa da:

Euroak milakotan		
SOZIETATEA	IZFE, SA	Bidegi, SA
Errentamenduak.....	65	23
Aplikazioak, makineria eta ekipoen mantentze-lana.....	4.133	-
Garapen, sistema eta euskarrien garapenak.....	8.768	-
Konponketak eta zaintza.....	-	4.560
Profesional independenteen zerbitzuak.....	293	398
Telefonia eta teleprozesua.....	821	-
Banku zerbitzuak.....	-	1.174
Hornidurak.....	121	1.763
Kudeaketako bst gastu arrunt btz: A-8 eta AP-1-en manten. lan eta ustiap. ..	-	30.422
Merkataritzako eragik. ondorioz zuzkid. galerak, narriadura eta bariazioa.....	-	6.593
Beste kontzeptu txikiago batzuk.....	628	222
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.829</b>	<b>45.155</b>



## D.7 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

2016-AN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	Mota	Esleipen moldea	Esleipen zenbat.	Egik. 2016
<b>IZFE, SA</b>				
Gipuzkoa Sarea telekomunikazioen zerbitzua-Datuak: .....	Zerbitzuak	Irekia		
1. sorta: 4 urte.....			518	-
2. sorta: 2 urte.....			188	-
Microsoften lizentzia (4 urte).....	Zerbitzuak	Irekia	608	170
Gutuneriaren tratamendua (2 urte).....	Zerbitzuak	Irekia	a.p.	126
SMART Gipuzkoa modeloaren garapena (urte 1).....	Zerbitzuak	Irekia	121	30
Diru-bilketarako sistema integralaren aholkularitza .....	Zerbitzuak	Irekia	217	217
Host ingurune eta ingurune banatuko makinak, progr. eta zerb. (3 urte) .....	Hornidura	PGPN	10.337	-
GFaren eta IZFEren egoitzen artean fibra optiko bidezko lotura (4 urte).....	Hornidura	Irekia	599	-
VMware lizentziak, euskarria eta mantentze-lanak 2017rako .....	Hornidura	Irekia	207	-
<b>BIDEGI, SA</b>				
GI-632 Antzuola-Bergara bide-zatiko saihebidetako lanak bukatzea .....	Obrak	Irekia	(*)50.486	-
GLH goi mailako sareko azpieg. kobr. sistem. proi.,obra, mantentzea .....	Obrak	Irekia	19.293	-
Eibar-Vitoria norabidean AP-1 zolaren egiturazko zaharberritzea.....	Obrak	Irekia	423	423
Behobia norabidean Orioko zubibidearen zolaren azaleko zaharberritzea .....	Obrak	PGPN	239	242
Bilbao norabidean Orioko zubibidearen zolaren azaleko zaharberritzea.....	Obrak	PGPN	232	191
Aurreko obra espedienteko lanen zuzendaritzari laguntza zerbitzua.....	Zerbitzuak	Irekia	409	-
Bidegik AP-1 eta AP-8an kudeatutako inst. elektrikoaren hornidura eta lag. tek. horien efizientzia energetikoa hobetzeko (2 urte) .....	Hornidura	Irekia	3.684	795
<b>Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA</b>				
Aian abelgorrien haragiaren testatze zentroan instalazioak handiagotzea .....	Obrak	PPN	505	60
La Floridan hirigintza jard. progr. idaztea, birpartz. proiekt. eta urban. ....	Zerbitzuak	Irekia	116	23
Gipuzkoako mendi-larreak kudeatzeko zerbitzuak (2 urte).....	Zerbitzuak	PPN	109	-

**PPN** Publikotasundun Prozedura Negoziatua

(\*): Obra hau egikaritzeko ordainketa eta konpromiso kredituak GFAn inbertsio errealean kapituluan daude aurrekontuan jasoak eta horien egikaritza Bidegi, SAri agindu zaio.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan (BEZa barne)

DESKRIBAPENA	Jatorri urtea	Esleipen zenbat.	EGIKARITZA			Egoera
			15.12.31	2016	16.12.31	
<b>IZFE, SA</b>						
Telekomunikazio zerbitzuen hornitzearen hautaketa .....	2010	a.p.	4.099	789	4.888	Amaitua
AM laguntza tekn. zerbitzuak, aholkularitza eta garapen informatikoa (4 urte)	2015	a.p.	3.796	6.213	10.009	Egikaritzen
<b>BIDEGI, SA</b>						
GI-632 saihesbidearen eraikuntza: Urrerxu/Legazpi-Bergara bide-zatia .....	2011	50.512	53.285	2.475	(*) 55.760	Amaitua
1, 2 eta 3 espediente aldatuak.....	2013	4.104				
4. espediente aldatua .....	2014	3.618				
Obretan segurtasuna eta osasuna eta Lan arriskuen prebentzioa (4 urte)..	2011	a.p.	257	-	257	
2 urteko luzapena 2017ko abuztura arte .....		a.p.	22	66	88	Egikaritzen
Bidegi proi. finantziarioaren egituraketan lag. tekn. (3 urte).....	2013	547	263	31	294	Egikaritzen
Ingurumenaren jarraipen eta zaintzan laguntza tekn. (3 urte).....	2013	178	154	28	182	Egikaritzen
1. espediente aldatua .....	2014	18				
TAG gailua Deskontu Planen erabiltzaileak (4 urte) .....	2014	1.220	870	305	1.175	Egikaritzen
1. espediente aldatua .....	2015	54				
N-1ean kanpoko efizientzia energetikoko argiteria instalatzea Lasarte.....	2015	579	-	464	464	Amaitua
N-1ean kanpoko efizientzia energetikoko argiteria instalatzea Irura.....	2015	1.206	-	1.091	1.091	Amaitua
A-15 aireztatzeko sistema berritzea, efizientzia energetikoa hobetzea.....	2015	1.492	-	1.053	1.053	Egikaritzen
Eibar-Gasteiz AP-1 120,45 p.k. lur-erazketako ezponda egonkortzea .....	2015	1.539	2.188	1.785	3.973	Amaitua

**AM:** Akordio Markoa

**a.p.** Aleko prezioetan esleitua

**(\*)** 2015eko ekitaldian amaitutako obra honetan egikaritzaren eta esleipena gehi aldaketan arteko aldearen arrazioa da esleitutako zenbatekoan BEZa sartu dela eta 2012tik aurrera egikaritutakoan ez dagoela BEZik subjektu pasiboa aldatu delako.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 2016KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorrari egindako fiskalizazioaren emaitzei erantzuna ematearren, eta otsailaren 5eko 1/1998 Legearen 13. artikuluan zehaztutakoa betez, txosten honetan aurkezten ditugu aipatutako emaitzei dagozkien alegazioak eta justifikazioak.

### **II. IRITZIA**

#### **II.1 FORU SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEEK LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

##### **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

#### **HKEE-REN TESTUA**

*1. GFAk uste du bertako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik, ezintasun irauunkorragatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2016an 39 langileri guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikuluaaren arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZetik salbuetsita, abenduaren 5eko 13/2013 FAren 9. artikuluaaren arabera (ikus B.3 eranskina).*

#### **ALEGAZIOA:**

Diputatuen Kontseiluaren 2013ko urriaren 15eko Erabakiaren bidez (urriaren 17ko GAO, 199. zenbakia) aldatu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Baliabideen Plan Estrategikoaren Lehenengo Tituluko II. Kapituluaren jasotako 2.4 eta 2.5 puntuak; plan hori onartu zen Diputatuen Kontseiluaren 1998ko urtarrilaren 7ko Erabakiaren bidez, eta aldatu zen 1998ko martxoaren 24ko eta 2009ko uztailaren 7ko Erabakien bidez.

Zehazki, neurri hauek arautzen dira bertan:

- 2.4. Neurria. Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionarioen edo lan kontratupeko langile finkoen erretiro aurreratua.
- 2.5. Neurria. Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publiko izateari uko egite saritua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren laneko etekin gisa sartu zituen (190 eredua) 2016an ordaindutako erretiro aurreratuagatik eta uko egite sarituen sariak, eta salbuetsizat jo ziren 2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak,



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, 9.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Baliabideen Plan Estrategikoak, 2009ko uztailaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako aldaketak, berariaz aipatzen ditu foru erakunde honetako plantilla birdimentsionatzeko neurriak, eskura dituen giza baliabideak ordenatu eta planifikatzeko xedez onartutakoak. Aipamen horrek lotura garbia du langileen Estatutuko 51. artikuluan aurreikusitako antolakuntzazko kausekin, irazpen kolektiboaren figura arautzen baita bertan.

Beraz, antolakuntzazko kausa hori egoki egiaztatzen da aurreko Giza Baliabideen Plan Estrategikoan, eta beraz, bat dator langileen gastuen arloko araudiarekin.

### **III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

#### **III.A GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

##### **III.A.2 SARRERA FISKALAK**

#### **HKEE-REN TESTUA**

- *2016ko aurrekontu-ekitaldiaren itxieran, zerga zorrak geroratzeko eta zatikatzeko berrogeita bi eskabide daude, guztira 12,7 milioi euro egiten dutenak eta GFAk ebatzi ez zituenak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-bilketako Erregelamenduaren 44.2 artikulua aurreikusten duen sei hilabeteko epean. Zordunek ordainketa plan bat aurkezten dute eta horri berandutze interesa aplikatzen zaio. Plan hau, nahiz ez duen GFAk berariaz onartzen, bete egiten da oro har eta 2016ko ekitaldi itxieran ingresatzeko dagoen zor saldoa 8 milioi eurorena da. Amaitzeko esan behar da zor hauetarako ez dela bermerik gordailatu. Txosten hau idatzi dugun datan aipatu ditugun berrogeita bi eskabideetatik hogeita zazpi, 5,8 milioi euro egin dutenak, 2017an eman dira; bederatzik, 1,2 milioi euro egin dutenek, zorra kitatu dute; 929.156 euro egin duten beste lau, hartzekodunen konkurtsuan deklaratu dira eta 51.499 euroren beste biek ez dute eskatutako dokumentazioa aurkeztu.*

#### **ALEGAZIOA:**

Alegazio hau egiterakoan, Zerga zorra zatikapenaren eskaera bakarra dago, 902.223,56 eurokoa, GFAk ebatzi ez duena sei hilabeteko epean. Hala ere, eskaeran behin-behineko ordainketa-plana ezarri da eta gaurko zorra 733.266,09 euroko da.





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## HKEE-REN TESTUA

- *2016ko ekitaldian emandako hogeita sei gerorapen aztertu ditugu, guztira 49,7 milioi euro egin dituztenak, eta honako alderdi hauek gailendu behar ditugu:*
  - *Guztira 2,3 milioi euroren zenbatekoan emandako bost espedientetan, 3 eta 11 hilabete bitartean gainditu da zatikapena emateko gehiengo epea.*

## ALEGAZIOA:

Aurreko alegazioan adierazita dagoen bezala, momentu honetan ia betetzen ari da aurkeztutako eskaeren ebazpena Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-bilketako Erregelamenduaren 44.2 artikulua aurreikusten duen sei hilabeteko epean.

## HKEE-REN TESTUA

- *GFAk 2016ko ekitaldian preskribitu dutelako bajaran eman die zordun baten zerga-zorrei, guztira 688.576 euroren zenbatekoan, 2007-2010eko aldiari dagozkionak; ez dira, baina, preskribapena etengo duten jarduerak gauzatu. Zordun honek baditu zor zaharragoak indarrean eta horiei dagokienez, dagozkion egintzak abiarazi dira zorrak preskribatzea saihesteko.*

## ALEGAZIOA:

Zordunak likidazio batzuk zituen premia-espeditante batean. Bertan, 2009 eta 2010 artean saiatu ziren kontu bahiturak, merkatal kredituak, baita ibilgailu baten bahitura ere; baina emaitzarik gabe. Azkenean 2010eko abuztuaren 31n jakinarazi zitzaion zergadunari ondasun eta eskubideen zerrendaren eskaera; eta horrela likidazio horien preskripzioa eten egin zen. Data horretatik 2014ko abuztuaren 31 arte ez zen lortu GFAOko 67 artikuluan aipatzen diren egintzarik burutzea, eta 2014ko abuztuaren 31an preskribitu ziren.

Burutu zitekeen egintza bakarra zordunaren ondarearen aurka jardueraren eta bertan zeuden ondasunen bahitura presentziala zen. Hala ere, garai hartan ez zegoen horretarako baliabiderik, ia ez zen horrelakorik burutu. Orain badago lantalde bat prestatua horrelako bahiturak egiteko.

Administrazioaren beste aukera da ordainketa-erantzukizunaren deribazioa, baina zordunak jarraitzen zuen BEZa eta atxikipeneko autolikidazioak aurkezten diru-sarrerarik gabe 2009 eta 2014 urteren artean. Orduko araudiarekin ezinezkoa zen deribazioa baldintza horietan. Horregatik, hain zuzen ere, GFAOko 43.2 artikulua aldatu egin zen eta orain posible izango litzateke administratzailearen ondarearen aurka egitea hori gertatuz gero.

Bukatzeko, aipamen berezia behar du 2005ko BEZaren likidazioarekin gertatutakoak. Likidazio hori ez dago preskribituta hirugarren baten berme hipotekarioa daukalako.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Ondasun horren exekuzioa hasita dago eta enkantea 2018ko bigarren hiruhilekoan aurreikusten da. Likidazio hori guztien artean handiena da.

## HKEE-REN TESTUA

- *GFAk ez ditu banaketara meneratutako diru-bilketa modura aitortzen berandutza gainkargu eta interesen % 10,6, guztira 1,4 milioi euro egiten dutenak. Azken ekitaldian errepikatu den ehuneko hau antzina egin ohi zen balioespena da, banaketara meneratzen ez ziren zergak, orduan, eragiten zituzten kobrantzen kontzeptuan. Tributu hauek zehaztasunez identifikatu behar dira eta ez gutxi gorabeherako eran.*

## ALEGAZIOA:

Tributuak kudeatzeko gaur egun erabiltzen den aplikazio informatikoak ez du ahalbidetzen errekareruak eta berandutze interesak zer tributurerekin dauden lotuta automatikoki identifikatzea. Hala ere, 2018ko ekitaldi honetan, eguneratu egin da erabili beharreko ehunekoa, banatzekoak diren errekareruak eta berandutze interesak banaketari lotuta dauden zerga kontzeptu nagusiekin bat etor daitezzen.

### III.A.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA

#### *Kontratazio espedienteak*

## HKEE-REN TESTUA

### *Administrazio kontrataziorik gabeko gastua*

*Administrazioko kontratazio espedienterik gabe kontrataturiko gastua aztertzean hamar jarduera azaleratu dira, guztira 738.996 euroren zenbatekoan, zeinetan batzuetan lehia printzipioa ezartzea eskagarri den eta beste batzuetan, hori aplikatzea gomendatzen den; izan ere, horietako bakoitza ekitaldian zehar gauzatutako jarduera bati dagokion arren, finean gastu homogeneoak eta ekitaldi bakoitzean planifika daitezkeen gastuak dira (ikus B.14.2).*

## ALEGAZIOA:

### **Ontzi itxien hornidura**

Ikastetxeetan hondakinak prebenitu eta birziklatzeko 2015-2016 kanpainako zerrendatan akats bat gertatu zenez materialen zenbaketan (gutxiago zenbatu ziren), erosi egin behar izan ziren falta ziren materialak eta oso azkar banatu behar izan ziren, premiazko bi kontratu txiki berri sinatuta.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## HKEE-REN TESTUA

### Errepideko bidaiarien garraioa

- Errepideko bidaiarien garraio zerbitzuaren sei emakida kontratuetatik bostetan (ikus B.14.1, 25, 26, 28, 29 eta 30 espedienteak) urteko likidazioan zerbitzuaren kalitatea ebaluatuko dela dioen klausula bat jaso da, likidazioak bidaiarien kontzeptuan jasotako sarreren % 2ra arteko igoera izan dezakeelarik. Ordaindu beharreko ehunekoa zehaztea neurgarriak diren parametro batzuen baitakoa da (% 1) eta hautemandako kalitatezko adierazle batzuen baitakoa (% 1). 2016ko ekitaldian iraugitzen diren urtekoei dagokien zenbatekoa 501.279 eurorena da eta kasu guztietan, finkatutako gehienekoa % 2koa da. Klausula honi dagokionez alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Ordaindu beharreko ehunekoa finkatzeko haztapen-irizpideak ez dira garatu bi egoeretatik batean ere.
- 2016ko ekitaldian ez da kalitatezko parametro eta adierazleak bete izana egiaztatu, likidazioa igotzea eragiten dutenak.

## ALEGAZIOA:

Errepideko bidaiarien garraioaren zerbitzu publikoaren emakida kontratuen kalitatearen ebaluazioari dagokionez, Mugikortasun eta Garraio zuzendari nagusiaren Rs-MU 7/2015 Ebazpenaren, urriaren lekoaren, bidez, Deitel Direct SL enpresari esleitu zitzaion erabiltzaileek Lurraldebusen zerbitzuen kalitateari buruz duten pertzepzioari buruzko ikerketa bat egiteko zerbitzu kontratua. Kontratu horretan oinarrituta ebaluatu zen emakida kontratuen bidez emandako bidaiarien garraio zerbitzuen kalitatea.

Kontratu horri jarraikiz, 1.100 inkesta egin zitzaizkien Gipuzkoako eskualdeetako errepideko garraio publikoaren 975 erabiltzailereri, eta erabiltzaile diren 125i, 2015ko azaroaren 19ra arte. Inkesta horien galderen gaien artean zeuden erabili beharreko garraio linea identifikatzeko erraztasunaren balorazioa, hartu beharreko lineari dagokion ibilgailua identifikatzea, garraio zerbitzuen informazioa jasotzeko moduak, kexak non edo nori aurkeztu behar zaizkion, ibilgailuen egoera, puntualtasuna, langileen atsegintasuna, maiztasuna, geralekuak, segurtasuna, bezeroaren informazioa eta arreta, eta abar.

### III.A.4 DIRU-LAGUNTZAK

## HKEE-REN TESTUA

- GFAk berme eta arriskuko bi sozietateri diru-laguntza zuzen bat eman die (8. espedienteak) guztira 900.000 euroren zenbatekoan eta hitzarmenean zehaztu da emandako zenbatekoa murriztu ahal izango dela hitzarmenean jasotako aurreikuspenekiko sozietateek azkenean izenpetzen dituzten eragiketen desbideratzearen arabera. Ez da zehazten nola gauzatuko den murrizketa hori.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ALEGAZIOA:

2016ko uztailaren 29an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EIKARGI SGR eta OINARRI SGR Elkarrekiko Berme Elkarteen artean lankidetzaz hitzarmena sinatu zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko enpresen finantzaketa errazteko.

Hirugarren klausula – Hornidura teknikoetarako funtsa sendotzea.

d) atala: *Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpena murriztu ahal izango da, inoiz ez handitu, azkenean sinatzen diren eragiketen zenbatekoaren arabera; horietarako hasierako aurreikuspena honakoa da...*

Zentzu honetan, proportzionaltasun irizpidea erabiliko zen diru laguntzaren xedek mantendu baziren, kontuan hartuta sinatutako hitzarmenean ezarritakoa hasierako aurreikuspenak zirela eta emandako kopurua Hornidura Teknikoetarako Funtsera esleitzen zela, hartara agortu arte, gehienez, emandako diru laguntza, baldin eta ekarpena murrizten bazen; baina azkenean ez da hori gertatu.

## HKEE-REN TESTUA

- *2014ko ekitaldian GFAk Errenteriko Udalarari 3,5 milioi euroren diru-laguntza zuzena eman zion Lekuona lantegia arte eszenikoen zentro modura egokitzeko; bertan, GFAk egin beharreko ekintzen kostu guztiaren gainean % 60 finantzatu zuen; hona hemen azpimarratu nahi ditugun alderdiak:*

- *Foru Gobernu Kontseiluak 2016ko uztailaren 19an onartu zuen indarraldia 2017ko abenduaren 31ra arte luzatzea eta 2017ko ekitaldira aldatzea 2016ko ekitaldiko urtekoa, 1,4 milioi euroren zenbatekoan. Erabakiaren aurrekarietan esaten da 2016ko maiatzean egindako batzorde teknikoaren eta obren aktak jasotzen duela eten eta kitatu egingo dela izenpetutako obra kontratua, proiektua aldatu egingo dela eta beste lehiaketa bat abiaraziko dela arte eszenikoen erreferentziazko zentroko lanak amaitzeko eta honenbestez, gomendagarria litzatekeela hitzarmenaren likidazioa egitea .*
- *2016ko abenduaren 31n GFari diru-laguntzaren norakoaren justifikazio modura aurkeztutako ziurtagiriek 3,7 milioi euroren zenbatekoa egiten dute guztira eta GFAk 3,7 milioi euro ordaindu ditu guztira; horrek GFaren aldetik % 66ko finantzaketa egin dela esan nahi du.*

## ALEGAZIOA:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak hala eskatuta, lankidetzaz hitzarmena aldatu egin zen, uste zuelako eskualde horretan lehentasuna eman behar zitzaioela erakusketaren auditorioaren tamaina aldatzeari, beharrezkoa ikusten baitzen erakusketa eta sormen dinamikak uztartzea, bestela erakusketarena kaltetua geratzen zelako.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Errenteriako Udalak proiektua birdefinitzeari ekin zion. Kontrata bidez obrak gauzatzeko aurrekontua (Exekuzio materialeko aurrekontua, gehi Gastu Orokorrak eta Mozkin Industrialak, gehi BEZa) 5.999.774,80 eurokoa izan zen. Baina horri erantsi behar zaio kultur eraikin hori bukatzean beharko den ekipamenduaren kostua. Kostu horren aurrekontua 959.435,92 eurokoa da. Kontratu hori duela gutxi esleitu da eta 2018. urtean zehar gauzatzeko dela uste dugu.

Egoera horrek behartu gaitu Errenteriako Udalarekin genuen lankidetzaren hitzarmena aldatzera, kontuan izanda proiektuetan egin behar izan diren zuzenketak. Foru Gobernu Kontseilura eramango da proiektu berri hori 2018. urteko martxoan, onartu dezan. Proiektu horrek hartu duen dimentsio berriak interesekoa izaten jarraitzen du Foru Aldundiarentzat, kultur azpiegitura horrek ekarpen handia egingo baitio eskualdeari. Hori horrela, diru laguntzaren ehunekoa hasieran aurreikusitako %60aren oso behetik geratuko da. Diru laguntzaren zenbatekoa hasiera batean onartutakoa izango da, 2.436.963,55 euro, hain zuzen; eta inbertsioaren gainerakoa Errenteriako Udalak berak ipiniko du. Hitzarmenaren iraunaldia aldatu egingo da eta 2018. urtean amaituko da.

### ***Deialdi publiko bidez emandako diru-laguntzak***

#### **HKEE-REN TESTUA**

- *Diru-laguntza lerro batean (12. espedienteak), zeinaren indarrez 2,4 milioi euro eman diren, oinarri-arauek ez dute balorazio-batzorde bat eratzeke agintzen eta zerbitzuburuak egiten du balioespena.*

#### **ALEGAZIOA:**

Egia da basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko laguntzen 2016ko oinarrietan eta deialdian, akats baten ondorioz, ez zela aurreikusi balorazio batzorde bat eratzea, lehia bidez eman beharreko laguntzarako 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak –Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzenak- 20.1 artikuluan ezartzen duen bezala. Halere, adierazi behar da deialdi hartan baldintzak betetzen zituzten eskaera guztiek laguntza jaso zutela eta ez zela ezezikorik egon aurrekontu baliabideen faltagatik.

Nabaria izanik aipatutako arauaren xedea eskaeren balorazioan objektibotasun handiagoa lortzea dela, espedienteak izapidetzeko arduradun bakar baten esku utzi gabe, diru laguntzak oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten guztiei ematen bazaizkie, dagozkion ebazpen proposamena balorazio batzorde batek ez egiteak garrantzia galtzen du. Hain zuzen ere, gogorarazi behar da, zentzu horretan, diru laguntzei buruzko araudiak berak (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamenduak -2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutakoak-; 34.1 art.) aurreikusten duela kasu horietan beharrezkoa ez izatea laguntzen onuradunak ezartzeke zuzendutako balorazioa egitea: *“diru laguntzaren oinarrietan salbuetsi daiteke deialdian jasotako kreditua nahikoa izanez gero ezarritako beharkizunak betetzen dituzten eskaeren*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*arteon lehenetasun ordena jartzeko baldintza betetzetik, aurkezpen epea amaituta zenbat eskaera aurkeztu diren kontuan hartuz*<sup>1</sup>.

### **III.B ERAKUNDE AUTONOMOAK**

#### **III.B.1 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA**

##### **HKEE-REN TESTUA**

*2016ko ekitaldian zehar Uliazpin hainbat ondasun eta zerbitzuren erosketa egin da, 7 jarduerari dagozkionak, guztira 520.480 euroren zenbatekoarekin, bakoitza hornitzaile bakarrarekin kontratatua eta kontratu txikiaren moldea baliatuta izapidetua; alabaina, horientzat guztientzat lehia printzipioa aplikatzea dagokio (ikus C.2).*

#### **ALEGAZIOA:**

Adierazitako horien inguruan, balioespen desberdinak egin litezke:

1.- 220 mila euroko zenbatekoa duten zenbait obra eta konponketa-lan kontratatzeko arrazoa, funtsean, oso ezaugarri zehatzak dituzten jarduera batzuk egin izana da: Zentroa itxia dagoen orduetan egin beharreko konponketa-lanak dira, zerbitzua eskaintzeko ezinbesteko instalazioak direlako.

Zentroa soilik Eguberritan ixten da; gainera, data horietan dauden egun batzuk jaiegunak dira.

Horregatik, enpresa esleipendunak ezaugarri zehatz batzuk bete behar ditu, eta adibidez, zentroaren instalazioak ezagutu behar ditu edozein arazo gertatzen bada ere (argindarraren eta uraren hornidurak...), langileak ohiko lanalditik kanpo ere lan egiteko moduan izan behar ditu, eta hori guztia lan egiteko dauden egun guztiak kontuan izanda, jaiegunak ere barne, eta kontuan izanik, horrez gain, data horietan, Eguberriak direnez gero, eraikuntza-enpresek zailtasunak izaten dituztela langileak topatzeko.

Hain zuzen ere, horixe da lan hori zuzenean eta berme batzuekin egin zezakeen enpresa kontratatzeko arrazoa.

2.- Medikuntza-zerbitzuak, errehabilitazio programa bereziak (musikoterapia) eta aisia eta udalekuekin loturiko ekintzak, 38, 39 eta 36 mila euroko zenbateko batez hurrenez hurren.

Uliazpiren eginkizun nagusia biztanleriaren barruko kolektibo oso berezi baten ongizate orokorra sustatzea eta bizi-kalitatea hobetzea da, hain zuzen ere, adimen-urritasuna eta laguntza-premia orokorrak dituzten pertsonena.

---

<sup>1</sup> Emakidak lehenetasunezko hurrenkera bat bereizten du, oinarri-arau arautzaileetan aurreikusten den moduan. Azpimarratu dena da balorazioa ez duela ebaluazio-batzorde bat egin.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Horretarako, eta beste alderdi askoren artean, medikuntza-zerbitzu batzuk biltzen ditu, Adimen Ezgaitasun larriaren alorrean hainbat espezialitate eta esperientzia dituen, gure erabiltzaileei arreta egokia eskaintzeko beharrezkoak direnak. Kontratututako zenbatekoa medikuntza-zerbitzu desberdinetan banatzen da: Neurologia, Pediatria eta abar, eta horrexegatik, egoki ikusten da, eta egin ere egiten dira, espezialitate desberdinetan adituak diren profesionalen kontratazioak.

Beste alde batetik, Uliazpik hainbat jarduera antolatzen ditu, eta horien artean ditugu integrazio komunitarioko programak, terapia mota desberdinak, aisia eta udalekuetako ekintzak eta abar, nahitaez erakunde espezializatuak egin beharrekoak, eta horrexegatik, aurreko paragrafoan adierazitako modu berean jokatzen da horrelakoetan.

- 3.- 44 mila euroko zenbatekoa duen Pelleten hornidurari dagokionez, esan beharra dago orain urtebete pasatxo biomasa-galdara bat abian jarri izanak eragin zuela horren beharra. Hasieratik Foru Aldundiak eskaintako hornitzailearengana jo genuen, eta hark, bai bere kontsumoa eta bai Uliazpirena ere handitu egin dela ikusirik, aurtengo ekitaldian kontratazio-prozesu bat abian jartzea pentsatzen ari da, Kontrataziorako Foru Mahaiak kudeatutako Hitzarmen Marko baten bitartez. Uliazpi barruan horrekin bat egiteko borondatea dugu.
- 4.- Laguntza teknikoetarako zenbait produkturen hornidurari dagokionez, hala nola ohe artikulatuak, laguntza-garabiak,... guztira 47 mila euroko zenbatekoa dutela, eta halaber, mantentze-lan eta ordezkapen-jarduera batzuekin loturik, guztira 96 mila euroko zenbatekoa izanik, esan beharra dago horien kontratazioak Uliazpiren sei zentrotan egiten direla, eta zentro horiek, geografikoki, Donostia, Zizurkil, Hondarribia, Bergara eta Eibarren banatuak daudela, eta zentro bakoitzaren beharretara behar bezala egokitzea komeni denez, modu deszentralizatuan egiten dira.

### **III.C MERKATARAITZAKO FORU SOZIETATEAK**

#### **III.C.2 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA**

##### **HKEE-REN TESTUA**

###### **Alderdi orokorrak**

*2016ko ekitaldian ez da Sektore Publikoaren Kontrataziorako Plataforman argitalpena egin, Merkatu Batasunaren Bermeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legearen xedapen gehigarri hirugarrenak arautzen duena, zeinak behartzen duen egitera, kasu guztietan, dela kontratazio atalek zuzenean, dela administrazio eta erakunde publikoen informazioa gehitzeko gailu elektronikoen elkarlotura bidez.*

###### **ALEGAZIOA:**

Bidegik bidezko kudeaketak hasi zituen berori Eusko Jaurlaritzako Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman sartzeko 2017an. Lehenik, aplikazioa (Munigex) egokitu da Legeak jasotako eskakizunetara, eta, joan den urtearen amaiera aldean Gasteizen Eusko



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Jaurlaritzaren xedean egindako bileraren ondoren, dagokion integrazio-eskaera bideratu da; hala, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Lege berria indarrean jartzerako, datorren martxoan, bertan ezarritako eskakizunak betetzeko moduan.

## HKEE-REN TESTUA

### *Bidegi, SA*

- *“Prezioa” esleipen irizpideari puntuak esleitzeko formulak (esleipen irizpideen % 51ko haztapena duenak) lizitatutako zenbatekoarekiko merkatze prezioaren eta emandako puntuen artean proportzionaltasunik batere ez duten balorazioak eragiten ditu honako kontratu hauetan: Antzuola-Bergara GI-632 saihesbideko obretan, 50,5 milioi euroan esleitu zirenetan; eta GLHn gaitasun handiko sareko azpiegiturak kobratzeko sistemarenean, 19,3 milioi euroan esleitutakoan. Espedienteetan ez dira justifikatu formula hau erabiltzeko arrazoiak.*

*Aipatutako bi espedienteetan eskaini diren gehieneko merkatzeek (% 20,95 eta % 18,54) prezio irizpideari esleitutako 51 puntuak eskuratu dituzte eta eskainitako gutxieneko merkatzeek, berriz, (% 7,23 eta % 5,05), hurrenez hurren, 50,04 eta 49,46 puntu eskuratu dituzte. Egoera honen ondorioz, esleipenduna hautatzeko unean prezioak ez du inongo eraginik.*

## ALEGAZIOA:

Formula matematikoen bidez ebalua daitezkeen balorazio-irizpide automatikoei dagokienez, kontratuen arloko errekursoetako auzitegien, aholkularitza-batzordeen... ebazpen ugari daude, baita artikulu doktrinal ugari ere. Hori, zalantzarik gabe, ikuspegi teologikotik eta teknika juridikoaren ikuspegitik hutsuneak dituen legeriaren seinale argia da. Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 150-2 artikuluan ez da inola ere proposatzen edo jasotzen irizpide objektibo horiek ebaluatzeko bidea emango duen inolako ereduako formularik.

Beraz, ulertu behar dugu legegileak autonomia ematen diola kontratazio-organoari balorazio-irizpideak finkatzeko, baldin eta berdintasunaren, publizitatearen eta lehia librearen irizpide orokorrak betetzen badira.

Bi baldintza-agiriek argiro zehazten dute 100 puntuak esleitzeko zein irizpide erabiliko diren, eta kontratazio-organoak, horretarako organo eskuduna izanik, bi kasuetan ezartzen duen formularen arabera, 51 puntu esleitzen dizkio gehieneko beherapenari eta zero puntu esleitzen dio ereduari jarraitzen dion eskaintzari, gainerako beherapenak tarteka interpolatuta.

Proportzionaltasunari dagokionez, Legeak bakarrik dio irizpide bat baino gehiago kontuan hartzen denean, irizpide bakoitzari esleitutako haztapen erlatiboa zehaztu beharko dela. Hortaz, linealak ez diren formulak bezain onargarriak dira formula linealak; hau da, baliozkoak dira “prezioa” aldagaiaren balio guztietarako esleitutako puntuen eta eskainitako prezioaren arteko erlazioa iraunkorra ez deneko formulak; eta hori bi kasuetan gertatzen





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

denez, proportzionaltasuna, neurri handi batean, batez besteko beherapena kontuan izanda eskaintzak zein tartetan dauden arabera izango da.

Batez besteko beherapen hori ez du Administrazioak finkatzen, lizitatuzaileek euren eskaintzen bidez baizik. Hortaz, proportzionaltasun-printzipioa errespetatzen da, lehia librea galaraziko duen asetze-atalaserik gabe.

Azkenik, bereziki nabarmendu behar da bi lizitazioek Gipuzkoako Lurraldeko beharrei eta, ondorioz, helburu estrategikoei erantzuten dietela. Horretarako, garrantzitsutzat jotzen dugu irtenbide tekniko hoberena ez dadila kaltebera izan beherapen ekonomiko nabarmen baten aurrean; horrek, bi kasuetan, arriskua ekarriko bailuke bi proiektuak aurreikuspenen arabera behar bezala garatu eta amaitzeko.

Gauzatze materialeko prezio doituak eta eskatutako baldintza tekniko eta operatiboek - horiek behar bezalako gauzatzea bermatzen dute- beharrezkoa dute neurrirako formula bat, gauzatze egokia eta ahalik eta ziurgabetasun ekonomiko txikiena ziurtatuko dituen.

Horrek justifikatzen du aipatutako formula erabiltzea.

Alde batetik dugu GI 632 errepidearen saihebidetza, Antzuola-Bergara tartea. Jardun horren historikoak egiazatu egiten du obraren xehetasun guztiak ezin hobe ezagutzeko beharra eta hura gauzatzeko zalantzarik gabeko trebakuntzaren eta gaitasun teknikoaren beharra. Obra horren beraren bigarren lizitazioa da, lehen gauzatzean geldiarazi egin baitzen, lurraldearen ezegonkortasunarekin lotutako arrazoiengatik, 2015eko hasiera aldean. Egungo proiektua 2015ean geldiarazitakoarekiko zeharo desberdina da. Lurraldearen eta ingurunearen ezaugarri geologikoei buruz egindako azterlanek nabarmen aldatu zituzten eskakizunak, eta, aldi berean, gauzatzea garestitu zuten. Lurraldearen osaera geologikoaren ezaugarriek irtenbide tekniko konplexuak eskatzen dituztenez, baldintza-agirietan hori jaso eta helarazi behar da, proposamen tekniko eta prezio-kostu koherentea eskatuta. Kasu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere sozietate publiko Bidegi, SAREN bidez, baldintza-agirian jasotzat eta justifikatutzat jotzen du aztergai den formula erabiltzea. Formula hori proposamen edo irtenbide teknikoarekin batera interpretatu behar da. Bestalde, gauzatzea berandutzeak kostu handiak ekarriko lituzke, bai ekonomikoak, bai sozialak. Izan ere, funtsezko azpiegitura da Gipuzkoako Lurraldeko proiektu estrategiko bat amaitzeko.

Bigarren proiektuaren xedea da Gipuzkoako Lurraldean bidesari-sistema berritzaile bat ezartzea. Horretan, konbinatu egiten dira teknologia eta arretarik behar ez duen kobrantza-sistemaren kudeaketa operatiboa. Horri eraginkortasun-maila handia eskatzen zaio, ia % 100ekoa. Sistema berritzaile eta Estatuan aitzindari horrek berekin ekarriko ditu gizarte- eta ingurumen-onura handiak, bai Lurraldearentzat, bai erabiltzaileentzat. Izan ere, irtenbidea ematen die dagokion kanona ordaintzeko beharrezko geldialdiek sorrarazten dituzten arazoei. Gainera, lurralde estrategiko honetan eraldaketa bat ekarriko du kobrantzaren kudeaketan, kontinentea gurutzatzen duten Europan zeharreko trafikoei dagokienez. Jarraian adierazten diren datuek frogatu egiten dute proiektuaren eta horren eskakizunen zehaztapen egokia, baldintza-agirian eta formularen deskribapen teknikoaren eta erabileraren arteko konbinazioan islatzen denez: sistema gauzatu eta ezartzeko esleipen-prezioaren eta azken likidazio eta ziurtapenaren arteko emaitza doituia (% 3ko aldakuntza); gauzatze-epe batzuk berandutzerik gabe betetzea; eta sistema funtzionamenduan egon den



lehen hilabetean lortutako emaitza arrakastatsuak (igarotzeen % 90 automatikoki kobratu dira).

Horrenbestez, ondorioztatu behar dugu bi kasuetan zorrotz errespetatu dela indarrean dagoen legeria.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **BOTO PARTIKULARRA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN KIDE DEN TERESA CRESPO DEL CAMPO ANDREAK GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2016-KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKOA.**

HKEEko gainerako kideen iritzari zor diodan errespetu osoz, boto partikular hau aurkeztu dut, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2016ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenari dagokionez, HKEEren Osoko Bilkurak 2018ko martxoaren 22an onetsi zuena.

Egoki irizten diot –ene iritzira- txostenean barne hartu behar ziratekeen zenbait datu jasotzeari; hona hemen horien xehakapena:

### 1 Legezketasunaren 2. salbuespena:

HKEEaren txostenak legea betetzeari buruzko iritzia atalean honako salbuespen hau jaso du:

*GFAk esleipen prozedura irekiari dagozkion betekizunak saihestuta hiru zerbitzu kontratatu ditu, guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoan, kontratazio araudian finkatutako publikotasun eta lehia printzipioak urratuz (ikus B.14.2 eranskina).*

*Berebat, GFAk guztira 2,9 milioi euroren zenbatekoan bost zerbitzu kontratatu ditu, kontratazio araudiaren arabera eskagarri liratekeen esleipen prozedura irekiak albora utzita; prozedura horiek ekitaldia amaitu aurretik gauzatu dira (ikus B.14.2 eranskina).*

Lehenengo paragrafoan Lurraldebusen hardware eta softwarearen mantentze-lanetan egindako gastua barne hartu behar zatekeen, guztira 253.587 euroren zenbatekoan, eta Lurraldebusen geltoki informatiboen mantentze-lanen kontzeptuko 184.795 euroren gastua. Eta bigarren paragrafoan, berriz, Lurraldebus Gunea eragiketarako zerbitzua ematen egindako gastua barne hartu behar zatekeen, 147.526 euroren zenbatekoan.

2013ko martxoan Lurraldebus, SA sozietateak Aldundiari laga zion bere aktibo eta pasiboa osotasunean eta honek eskubide eta obligazio guztiak subrogatu zituen.

Hardwarea eta softwarea mantentzeko-lanei dagokienez, Lurraldebus, SLk ez zuen inongo kontraturik gauzatu eta honenbestez, ezinezkoa da subrogaziorik gertatzea.

Beste bi supostuetan, Lurraldebusen geltoki informatiboen mantentze-lana eta Lurraldebus Gunea eragiketarako zerbitzu ematea, kontratuak, hurrenez hurren 2008ko abenduan eta 2009ko urtarrilean izenpetu ziren. Lehenengo kasuan urtebeteko iraupenarekin, zuzenean urtero luzagarria eta bigarren kasuan, bi urteko iraupenarekin, zuzenean bi urtean behin luzagarria. Bada, lagapen globala egiten den unean Aldundia desegindako sozietatearen harreman juridikoetan subrogatzen da, baina ez haren posizioan. Hau da, desegindako sozietatearen araudia ez zaio aplikagarri indarreko harreman juridikoei, ez da kontratuaren aldaketa subjektiborik gertatu. Ezin nagusitu dakioke kontratu (pribatu) baten kalifikazio juridikoa administrazioarentzat legezko mandatu bidez finkatutako kontratazioko araubideari. Arrazoi hau dela eta,



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

subrogazioaren osteko luzapena iraungi zenean lizitazioa bideratu behar zatekeen, kontratazioko araudi publikoari jarraikiz.

Azkenik, azpimarratu behar da kontzeptu hauek legezkotasunaren ez-betetze modura jaso direla HKEEk egindako Gipuzkoako Lurralde Historikoaren azken ekitaldietako (2014 eta 2015) Kontu Orokorren txostenetan.

2 Barne kontrolerako sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak Gipuzkoako Foru Aldundia Kontratazioa, Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastua:

HKEEren txostenak honako irizpen hau jasotzen du:

*Administrazioko kontratazio espedienterik gabe kontraturiko gastua aztertzean hamar jarduera azaleratu dira, guztira 738.996 euroren zenbatekoan, zeinetan batzuetan lehia printzipioa ezartzea eskagarri den eta beste batzuetan, hori aplikatzea gomendatzen den; izan ere, horietako bakoitza ekitaldian zehar gauzatutako jarduera bati dagokion arren, finean gastu homogeneousak eta ekitaldi bakoitzean planifika daitezkeen gastuak dira (ikus B.14.2).*

Paragrafo honetan honako espediente honi dagokion gastua barne hartu behar zatekeela iruditzen zait: “betun nahasketen ezaugarriak zehazteko entseguak egitea”, 43.455 euroren zenbatekoduna.

Aldundiak egindako alegazioan aitortzen da gastu hau 2016an administrazioko kontratazio espedienterik gabe kontratatu dela eta 2017an formalizatu dela kontratua, dagokion kontratazio espedientea izapidetuta. Epaitegiaren Osoko bilkuraren gehiengoak alegazioa onartzea erabaki du.

3 Barne kontrolerako sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak Gipuzkoako Foru Aldundia Diru-laguntzak. Izendunak:

Ene iritzira, txostenak ondotik jasotako gomendiozko testua barne hartu behar luke, Kontu Orokorrean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko azpiegituretan inbertsioei atxikitako diru-laguntzen zenbatekoaren berri emateko komenigarritasuna jasota uzteko.

*- Azken ekitaldietan Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko azpiegituretan inbertsioen % 33 finantzatzeko emandako diru-laguntzei dagokienez (19. espedientea), 2016ko abenduaren 31n metatutako 47 milioi euroren zenbatekodunak (6,3 milioi euro 2016ko ekitaldian) eta 77,8 milioi euroren zenbatekoa egin duten konpromiso kredituak, uste dugu Kontu Orokorrak informatu egin behar lukeela emandako diru-laguntzen zenbatekotik zenbat dauden lotuak azpiegituren guztizko balioaren behin betiko justifikaziora, 7/2008 FAn aurreikusitakoa.*



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### 4 Barne kontrolerako sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak Gipuzkoako Foru Aldundia Diru-laguntza zuzenak

HKEEren txostenak honako irizpen hau jasotzen du:

- *Diputatu kontseiluak zuzenean eman dizkie diru-laguntzak lau enpresari (5, 6, 7 eta 14 zk. espedienteak), guztira 246.250 euroren zenbatekoan. Komenigarria litzateke hobeto arrazoitzea bai izan diren interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak bai deialdi publikoa egiteko izan diren zailtasunak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Diru-laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 FAren 20.3.c) artikuluaaren arabera aparteko prozedura hau baliatzeko aukera ematen dutenak.*

Paragrafo honetan toki entitate bati emandako diru-laguntza barne hartu behar litzatekeela uste dut (1 zk. espedienteak), 1.107.043 eurorena, eta irabazi asmorik gabeko bi erakunderi emandakoak (9 eta 12 zk. espedienteak), guztira 618.069 eurorenak. Hiru kasu hauetan, Ogasun eta Finantza Saileko Kontuhartzailtza eta Auditoritza Zerbitzuak jaulkitako diru-laguntza proposamen hauen gaineko fiskalizazio txostenek adierazten dute, printzipioz, beste pertsona fisiko edo juridiko batzuk parte hartu dezaketela diru-laguntzaren xedean; espedienteak ez dira emakida molde aparteko hau baliatzeko herritarren intereseko arrazoiak egiaztatatu. Beharrezkoa da, honenbestez, arrazoitzea hobetzeko gomendia.

Gainera, eta 1. espedienteari dagokionez, Aldundiak egindako alegazioak ez du ezbaian jartzen arrazoitzea hobetu behar denik.

#### 5 Barne kontrolerako sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak Gipuzkoako Foru Aldundia Diru-laguntza zuzenak

Txostenak ondoko irizpena barne hartu behar lukeela uste dut, fiskalizazio-lanean azaleratu diren akatsen ebidentzia jasota uztearren:

- *Pasaiako badiaren berroneratzea Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoan barne hartutako proiektuetariko bat da eta honekin loturik, lau toki erakunderi guztira 2,1 milioi euroren diru-laguntzak eman zaizkie (13. espedienteak); honi dagokionez, ondotik zehaztutako alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu:*
  - *Toki erakundeei dagokienez, ez da adierazten zein irizpide baliatu diren diruz lagunduko diren inbertsioen zenbatekoa zehazteko; diruz lagunduen ehunekoa % 85 izan da.*
  - *Diruz lagundutako lau toki erakundetatik hiruk ez dute hiru eskaintza eskatu direla egiaztatuko duen agiririk aurkezten, eskagarri den kasuetan diruz lagungarri diren gastuak kontratatu aurretik, diru-laguntzei buruzko araudiari jarraikiz.*

Ez emakida proposamenaren azalpen zatian ez horrekin baterako agirietan ez dira adierazten diru-laguntzen banaketa zehazteko baliatutako irizpideak zein izan diren.



Bestalde, Diru-laguntzen Foru Arauaren 30.3 artikuluari jarraikiz, onuradunek, salbuespenik gabe, gutxienez hiru eskaintza eskatu behar dizkiete hornitzaile ezberdinei eta kasu honetan erakundeetako batek bakarrik aurkeztu du hiru eskaintza eskatu dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.



## ABREVIATURAS

BEI	Banco Europeo de Inversiones.
BOG	Boletín Oficial de Gipuzkoa.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DF	Decreto Foral.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
CRG	Consortio de Residuos de Gipuzkoa.
GHK	Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU.
IGAE	Intervención General de la Administración del Estado.
IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
IZFE	Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Foral de Servicios Informáticos.
NF	Norma Foral.
NF 7/2008	Norma Foral 7/2008, de 23 de diciembre, por la que se aprueba el documento de progreso (2008-2016) del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa 2002-2016.
PIB	Producto Interior Bruto.
PIGRUG	Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
THG	Territorio Histórico de Gipuzkoa.
TSJPV	Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.







## I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Programa de Trabajo para 2017, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa (THG) correspondiente al ejercicio 2016.

La Cuenta General del THG debe suministrar información sobre la situación económica, financiera y patrimonial del sector público foral, los resultados económico-patrimoniales del ejercicio y la ejecución y liquidación de los presupuestos y se forma, entre otros, con los siguientes documentos:

- Cuentas anuales e informe de gestión de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).
- Cuentas anuales del resto de entidades integrantes del sector público foral.
- Cuentas consolidadas del sector público foral.

El sector público foral del THG se halla integrado por:

- La Administración Foral, que se identifica con la Diputación Foral (DFG).
- La Administración Institucional que se halla integrada por los siguientes organismos autónomos forales:
  - Fundación Uliazpi, cuyo objeto y actividad es la atención a personas con discapacidad intelectual grave y sus familiares.
  - Kabia, cuyo objeto es la gestión, prestación y ejecución de servicios sociales.
- Las sociedades mercantiles forales (participadas todas ellas al 100% por la DFG):
  - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Foral de Servicios Informáticos, SA (IZFE, SA), que presta servicios informáticos a la administración foral y local.
  - Bidegi, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, SA, cuyo objeto social es el mantenimiento, conservación, construcción y explotación de los tramos guipuzcoanos de las autopistas A-8 y AP-1 y de sus instalaciones y servicios.
  - Etorlur Gipuzkoako Lurra, SA, cuyo objeto social es la promoción, ordenación, urbanización, compra y venta de suelo destinado a la ubicación de actividades económicas, viviendas y toda clase de equipamientos públicos. Asimismo, tiene como objeto la adquisición y gestión de suelo susceptible de uso agrario en el THG.



La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas presupuestaria, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, suministros y servicios, concesión de subvenciones y normativa sobre ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si las cuentas de la DFG, de los organismos autónomos forales y de las sociedades mercantiles forales se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
- Análisis financiero de la situación económica del Sector Público Foral.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

Los organismos autónomos y las sociedades mercantiles forales disponen de los correspondientes informes de auditoría externa.

## II. OPINIÓN

### II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD DE LAS ENTIDADES QUE INTEGRAN EL SECTOR PÚBLICO FORAL

#### DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

1. La DFG considera que según su Plan Estratégico de Recursos Humanos, las primas a la jubilación anticipada y renuncia incentivada a la condición de empleado público abonadas en 2016 a 39 empleados por un importe total de 1,2 millones de euros, son rendimientos del trabajo exentos de IRPF. Dicho Plan, no acredita la existencia de las causas que, según el artículo 51 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, permitirían asimilar dichas actuaciones a los despidos colectivos y despidos o ceses por causas objetivas, cuyas indemnizaciones sí están exentas según el artículo 9 de la NF 3/2014, de 17 de enero, del IRPF (ver Anexo B.3).
2. La DFG ha contratado tres servicios por un importe total de 1,2 millones de euros, eludiendo los requisitos relativos al procedimiento abierto de adjudicación e incumpliendo los principios de publicidad y concurrencia establecidos en la normativa de contratación (ver Anexo B.14.2).

Asimismo, la DFG ha contratado cinco servicios por un importe total de 2,9 millones de euros al margen de los procedimientos abiertos de adjudicación que hubieran sido exigibles según la normativa de contratación, procedimientos que se han realizado antes de la finalización del ejercicio (ver Anexo B.14.2).

En opinión de este Tribunal, excepto por los incumplimientos que se detallan en los párrafos 1 a 2, las Entidades que integran el Sector Público Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa han cumplido razonablemente la normativa legal que regula su actividad económico-financiera en el ejercicio 2016.

